

Kontzeju

Oñatiko Udal aldizkaria | 2018ko iraila | 286. zenbakia



www.oñati.eus



Berbia Oñati



@BerbiaOñati



oñati



Oñati Irratib

DELIK

ETORKIZUNeko OÑATI DENON ARTEAN ERAIKIZ

Udalak Herritar guzterie dei egiten die Hiri Antolamendurako Plan Orokorra lantzeko prozesuan parte hartzera



Abian da Oñatiko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra idazteko prozesua

Udalak herritar guztiei dei egiten die Oñatiko Plan Orokorra lantzeko prozesuan modu aktiboan parte hartzera, Oñati denon artean eginez.



Oñatiko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra (HAPO) idazteko prozesua abian da. Prozesu luzea da, gutxienez hiruzpalau urtekoa. Bidean, hainbat fase garatu behar dira, udalerriaz gaindiko administrazioetatik datozen baldintza ugari bere baitan integratu, hainbat agiri idatzi eta araututakoa planoetan jaso.


Baina zer jasotzen du horrelako Plan batek? Zeintzuk dira bere berezitasunak? Laburrean esanda, Plan Orokorrek udalerrien baten hirigintza garapenerako helburu, asmo eta estrategiak ezartzen ditu. Plan Orokorren bitartez hainbat aspektu zehazten dira, besteak beste:

PLAN OROKORRAK ZEHAZTEN DITUENAK

- Lurzoruaren sailkapena egiten da: hiri-lurzoria (jada eraldatuta dagoena edo modu errazean eraldatu daitezkeenak), lurzoru urbanizagarria (hiri lurzorura modu errazean barneratu ezin daitezkeen lurrak) eta lurzoru urbanizaezina (landa eremua eta ingurune naturalak).
- Lurzoruaren erabilerak finkatzen dira: etxebizitzetarako lurrak, jarduera ekonomikoetarako lurrak, azpiegiturentzakoak, etab.
- Lurzoru-mota bakoitzak duen eraikigarritasuna, hau da, zenbait eraiki daitezkeen, zehazten da.
- Lurzoru-mota bakoitzerako erregimena erabakitzen da.
- Beharrezko azpiegitura eta ekipamenduak nahiz horietarako lurzoru-erreserbak zehazten dira.

Funtsean, zer, non eta zenbat egin daitezkeen arautzen du Plan Orokorrak.





Gaur egun indarrean dauden hiri-antolaketako arauen mapa interaktiboa (www.oñati.eus)

Funtsean, zer, non eta zenbat egin daitekeen arautzen du Plan Orokorrak

Hori dela-eta, HAPO baten prestaketa eragile askoren partaidetza behar duen zeregina da. Oñatiko Udalak bete-betean asmatu nahi du herritarren beharrak eta nahiak ezagutzen eta guztiakin batera proiektatu nahi du udalerriri buruzko eredu partekatu bat. Horregatik, herritarrek parte hartzeko prozesu bat jarriko du martxan, guztiontzako Oñati sortzen lagunduko duena.

(3. orrira)



PLAN OROKORRAREN IDAZKETA FASEAK

Plan Orokorren idazketa prozesuak honako fase hauek edukiko ditu:

• 1. fasea: **DIAGNOSTIKOA.**

Bestelako gaiekin egiten den modura, Plan Orokorra idazteko prozesuan ere lehen urratsa udalerriko lurralde osoa eta hiria beraren egungo egoeraren analisia egitea izango da. Enfoke ezberdinetatik egiten den azterketa da. Bildutako informazioa oinarri, gaur gaurko egoeraren diagnostiko bat egin ahal izango da.

• 2. fasea: **AURRERAKINA.**

Diagnostikotik abiatuta, Planaren idazketa prozesuan kontuan hartzeko orientabideak zehaztuko dira fase honetan.

Aurrerakinean Plana idazteko unean kontuan hartu beharrezko irizpideak, helburuak, balizko alternatiba ezberdinak eta proposamen orokorrak jasotzen dira.

Horrez gain, aurrerakin dokumentua udalaz gaindiko administrazio publikoetara bidaltzen da, jakinaren gainean egon daitezen. Udalak Planaren Idazketan kontuan hartu beharrekoe txostenak egiten dituzte administrazio hauek.

Azkenik, Aurrerakin dokumentua jendaurrean jartzen da ikusgai, interesatuek agiri honen edukiaren inguruko iradokizunak aurkez ditzaten.

• 3. fasea: **HASIERAKO ONESPENA.**

Udalaz gaindiko administrazioen txostenek esandakoa kontuan hartuta, eta aurrerakin fasean zehaztutako orientabideak jarraiki, Plan Orokorra garatzea ahalbidetuko duten balizko alternatibak bideragarri diren aztertzen da fase honetan, eta egokienak hautatu. Era berean, aukera horiek ingurumenean sor ditzaketen eraginak identifikatu eta ebaluatzen dira.

Fase honetan ere hasierako onespeneren berri emango zaie eskumenak dituzten administrazio publikoei, jakinaren gainean egon eta dagozkien txostenak egin ditzaten.

Hasierako onespene-dokumentua ere jendaurrean jartzen da ikusgai, hala deritzonak alegazioak aurkezteko.

• 4. fasea: **BEHIN BEHINEKO ONARPENA.**

Hasierako onspene-dokumentuari aurkeztutako alegazioak aztertu eta erantzun ondoren, dagozkion aldaketak sartzen dira Plan Orokorrean eta behin-behinekoz onartzen da.

Eusko Jaurlaritzaren Lurralde Antolamenduko Batzordearen aurrean aurkezten da agiria, honek txostena egin dezan.

• 5. fasea: **BEHIN BETIKO ONARPENA.**

Behin dokumentuak oniritzi guztiak dituela, behin betikoz onartuko da eta Oñati hiriaren epe ertain/luzerako baliagarri izango da.

OÑATI DANA-ZANA 1934-2016



Herria nola garatu den ulertzeko

Hurrengo urteetarako plana egiten hasiko garen honetan, uste dugu garrantzitsua dela udalerrria nola garatu den ulertzea.

Horretarako Oñatiko udalak girotze lana egin nahi izan du aurretik. Hala herritarrei aukera eman zitzaizen udalerrria nola garatu den ulertzeko. Helburu horrekin antolatu zen 2017ko urrian "Oñati Dana-Zana (1934-2016)" ekimena.

Garai bateko Oñati nola aldatu den ikusteko erakusketa iraunkorra jarri zen Kale Barrian eta inguruko dendetan, 1934 eta 2016 urte bitarteko plano eta argazki zaharrek osatua. Azken 80 urteetan herriak izan duen bilakaera ikusi ahal izan zen eta bistaratu aldaketa horien oinarrian garaian-garaiko hirigintza-planak daudela. Ekimen honen baitan udalerrian zeharreko hainbat ibilbide ere gauzatu ziren: Ibai ezkutua, Landa inguruko eraldaketak, Plaza eta kaleen izana eta izaera, Lorategi eta baratze ezkutua izan ziren saioetako ibilbideak. Horien bitartez ezagutu ahal izan ziren une horretan herritar askorentzat ezezagunak ziren Oñatiko zenbait bazter.

Oñati danon artean irudikatzeko PARTE HARTZE PROZESUA



OÑATI
denon artean

Hiria Antolatzeko Plan Orokorren
Parte-hartze prozesua

Plan Orokorren idazketa prozesuan herritarren parte hartzea barneratzea ezinbestekotzat jotzen du Oñatiko udalak. Ahalik eta partaidetza kalitatezkoena ahalbidetzeko hainbat parte-hartze bide eskainiko dira idazketa prozesuak irauten duen bitartean. Aurrez aurreko bideak izango dira ugariak, baina Oñatiko udalaren webgunearen bitartez ere parte hartu ahal izango da. Aurrerantzean, izango duzue berri gehiago hortaz.

Lehen ere aipatu da Plan Orokorren idazketa denboran luzatuko den prozesua izango dela, baina hasierako momentuetan, oraintxe, funtsezkoa da ahalik eta lagun gehienok parte hartzea, etorkizuneko Oñati udalerrria nolakoa nahi dugun Oñatik pentsatzen hasteko. Hala, parte hartzeak toki nabarmena izango du Aurrerakin dokumentua landu bitartean, fase horietan oraindik egokitzapenak egiteko aukera egoten baita.

Aurreragoko faseetan erabaki garrantzitsuenak hartuta egoten dira, eta zailagoa izaten da dokumentuan sakoneko aldaketak egitea.

Udalak gogoz animatzen ditu herritarrak Oñati denon artea nirudikatzera

Udal Plangintzako Aholku Kontseilua

Partaidetzarako bidez gain, Lurzoruaren legearen aginduz, 7.000 biztanletik gorako udalerrietan Udal Plangintzarako Aholku Kontseilua deritzona osatu behar da.

Oñatiko Udal Plangintzako Aholku Kontseilukideen izendapena 2016 urtean berriztu zen. Bertan parte hartzen dute udaleko talde politikoen ordezkariak eta herriko elkarte, talde eta kolektibo ugariak ordezkariak ere.

Udalak, Plan Orokorra onartu aurretik, Kontseilu honen aurrean azaldu behar du, iritzia eman dezan. Horregatik, idazketa prozesuko une gakoetan, Aholku Kontseiluko bilerak egingo dira, edukiak eztabaidatu eta ekarpenak jasotzeko. Hasierako faseetan, Aholku Kontseiluko kide diren elkarte edo taldeak herritarrentzat orokorrean antolatutako saio edo espazioetan parte hartzera gonbidatzen ditu Udalak.

Plan Orokorren webgunea

Prozesuak dirauen bitartean webgune bat egongo da erabilgarri: www.oñati.eus.

Bertan, prozesuari buruzko informazioa, parte hartzeko bideak, deskargatzeko moduko agiriak, eta bestelako informazio osagarria aurkituko duzu.

AGENDA

DIAGNOSTIKO FASEA

• **IRAILAK 24**, (18:30), Euskaldun Barria Gelan (Bidebarrieta 18). Herritarrei prozesua aurkeztu eta lehen ekarpenak jasotzeko aurrez aurreko saioa.

Aholku Kontseiluko kide diren elkarteak, herriko gainontzeko elkarte, talde edo kolektiboak, eta interesa duen edozein herritar dago gonbidatuta.

• URRIAREN 17 ETA 18

Goiz eta arratsalde, Foruen Enparantzan parte hartzeko karpa irekia. Bertara gerturatzeko diren herritarrek, bakarka zein taldean, diagnostikoa osatzeko aukera izango dute.

➔ Zergatik parte hartuko duzu HAPOa idazteko prozesuan?

“ Iñigo Ruiz

Plan Orokorrek interesgarriak iruditzen zaizkit, arkitektoa naizelako, hirigintza asko gustatzen zaidalako eta, aldi berean, gure egunerokotasunari eragiten diotelako. Azkenean, bizi garen herriaren garapena definitzen duten erramintak dira (herrigunea, landalurrak, industria, azpiegiturak...), eta gure esku badago hori definitzea, uste dut oso inportantea dela herritarrok parte hartzea.



“ Amaia Castañeda

Arkitektura ikasten ari naiz eta hirigintza asko gustatzen zait, baina, batez ere, interesgarria iruditzen zait, hirigintza planek herritarren bizitza duten eraginagatik. Adibidez, Garay finkako lora-tegiek bi auzo banatzen dituzte, eta gune hori irekia balitz, lotura egongo litzateke bien artean. Ugarkalde ere asko aldatu da ur txorrotekin, tabernarekin, Eltziaekin... Denon artean erabaki behar dugu zer den onena Oñatirentzako.



“ Isabel Rebollo

‘Oñati Dana-Zana’ prozesuan antolatu ziren ibilaldietan parte hartu nuen, herria nola aldatu den eta nola hobetu daitekeen ikusteko, eta uste dut interesgarria dela herritarrok parte hartzea, denok ditugulako ideia baliagarriak, kontrakoa pentsatu arren. Desgaitasunen bat dugun pertsonok ere parte hartu behar dugu, ikusarazteko besteei guk ditugun zailtasunak, eta herri irisgarriagoa egiteko.



“ Anartz Murguzur

Plan Orokorreko bilera pare batean izan naiz, Olabartako auzo-alkate gisa, eta ikusi dut interesgarria dela prozesu horretan parte hartzea, bertan adostu eta erabakiko delako hurrengo urteetan Oñatin egin ahal izango diren edota mugatuko diren gauzak. Modu batera edo bestera denoi eragiten diguten erabakiak dira eta, beraz, garrantzitsua da parte hartzea arlo ezberdinetako herritarrek.





Business



Kids



Adults



Camps

iMatrikulazio epea zabalik!

3 urtetik aurrera

19 hizkuntza baino gehiago



Koma Oñati

Oiakua 7
mzumarraga@komalingua.com
+ 34 943 716 208



Koma Aitxasate

Iurrietz 35
lurkioola@komalingua.com
+ 34 943 712 631



www.komalingua.com

2018-2019 ikasturterako matrikula epea zabalik Udal Euskaltegian

Bedita Larrakoetxea udal euskaltegian prest daude ikasturte berriari ekiteko. Aurten ere eskaintza zabala prestatu dute: Euskalduntze eta Alfabetatze mailak, titulu ofizialak (EGA eta HABEren 1, 2, 3 eta 4. mailak) lortzeko ikastaroak, aurrez aurrekoak, etorkinei zuzendutako ikastaro bereziak, Oñatiko euskara lantzekoak... Maila eta behar guztietara egokitutako eskaintza. Izena ematen duten ikasleen artean matrikula baten zozketa egingo da. Joan den ikasturteko zenbait ikasleren iritzia bildu ditugu jarraian.



DIKSAN LEONARD GOMEZ

Duela urte eta erdi hasi nintzen euskara ikasten euskaltegian. Kubatarra naiz sortzez, baina nire emaztea euskalduna da, zarauztarra, eta berak animatuta hasi nintzen. Askok gustatzen zait euskara; oraindik asko daukat ikasteko, baina ari naiz, poliki-poliki. Aurten B1 maila lortu dut, eta nahiko nuke B2 maila ere lortzea. Dena den, tituluak baino gehiago, nire helburua da euskara ulertzea eta hitz egiteko gai izatea. Euskaltegian oso gustura ari naiz; jende gutxi gara taldean, baina asko ikasten ari naiz eta jarraitu egingo dut.



MARIA MUÑOZ RODRIGUEZ

lax hasi nintzen euskara ikasten, eta oraingoz oso gustura nabil. Nire adinean zaila da, urte asko direlako libururik hartu gabe, baina irakasleak asko laguntzen digu, eta ari naiz ikasten, poliki-poliki. Ez dut helbururik ipini, baina, gutxienez, ulertzera iritsi nahi dut, nirekin hitz egiten ari denak gazteleraz egin beharrik ez izateko. Oso inportantea da hori niretako. Urte asko daramat Oñatin bizitzen, eta arrazoi bategatik edo bestegatik ez dut euskara ikasi, eta pena handia dut. Baina orain denbora gehiago daukat eta gogoz nago.



MARTIN TXINTXURRETA ZELAIA

Bi helbururekin hasi nintzen iaz euskaltegian; batetik, C1 edo EGA agiria eskuratzea, lan mundura begira laster beharra izango dudalako. Eta, bestetik, nire euskara aberastea eta oinarri sendo batzuk finkatzea. Esperientzia polita izan da; klase-dinamika zabala eta aberatsa izan da, ikasle bakoitzaren maila eta beharretara egokitua, eta aparteko exigentziarik eskatzen ez duena. Beraz, animatzen dut jendea euskaltegira etortzera, eta ez bakarrik titulu beharra daukana, baita euskara aberastea helburu duena ere.





IZASKUN QUEREJETA AGIRRE

Masterra amaitu ostean, 4. Hizkuntz Eskakizun maila lortu eta curriculuma osatzeko asmoz eman nuen izena iaz euskaltegian. Egia da, hala ere, kurtsoak aurrera egin ahala ikusi nuela behar handia neukala nire euskara hobetzeko, batez ere gai teknikoetarako buruz idazteko garaian. Ikasketa guztiak euskaraz egin ditut, baina ohitura eta egitura batzuk berrikasi behar izan ditut, testu teknikoak ulergarriagoak izan daitezten. Egia zor, gogorra egin zait kurtsoa, baina asko ikasi dudala konturatu naiz eta horrek bete egiten zaitu.



DANIEL ENPARANTZA ITURBE

Aspalditik, ikasturte hasierarekin batera, nire asmoen berri koadernoan idazten nuenean, euskaltegira joan beharra apuntatzen nuen. Nire euskara maila hobetzeko beharra sentitu izan dut. Horregatik, aurreneko euskarari bere denbora eskaini diot eta euskaltegian apuntatu naiz. Hasiera batean erdi jolasa zena, azkenean lana eginez, emankorra bihurtu da. Horrela, hizkuntzaren aberastasunaz gozatzeko aukera izan dut eta gelakideekin edukitako uneak ederrak izan dira. Euskarari bere tartea eskaintzeak merezi izan du.



ANA MARI TATIEGGI ITURBE

Euskaldun zaharra naiz ni, baina etxean ikasitakoa. Eskolan sekula ez. Eta, jakina, idazterakoan akatsak egiten ditut, eta euskaraz irakurtzeko ohiturarik ere ez daukat. Beraz, beti eduki izan dut euskaraz alfabetatzeko gogoia, eta orain denbora gehitxoago daukadanez, izena eman dut euskaltegian. Abendutik ekainera ibili naiz bertan, eta oso gustura. Hamar-hamaika lagun ibili gara taldean, denak euskaldun zaharrak, eta oso giro ona izan dugu gure artean. Euskara maila hobetzea eta euskaraz sarriago egitea da nire helburua.

ASPALDIKO!

EUSKARA

BERRIRO

ZURE

BIZITZAN.

2018 - 2019 IKASTURTEA

- EUSKALDUNTZE ikastaroak: A1, A2, B1, B2, C1 eta C2 mailak.
- IKASTARO BEREZIAK: AISA, Ostalaritza...
- OÑATIKO EUSKARA
- EKINTZA OSAGARRIAK
- AZTERKETA OFIZIALAK MAIATZEAN ETA IRAILEAN

Eskaerari egokitutako erritmo eta ordutegiak.

OHIKO BEKA SISTEMAZ GAIN

Iraupen luzeko langabetuak doan. Informatu euskaltegian.

MATRIKULA EPEA: irailaren 3tik 21era

Oharra: Matrikulatzen direnen artean matrikula baten zozketa egingo da. Sarituak matrikula doan. Matrikula on-line ere egin ahal izango da.



BEDITA LARRAKOETXEA UDAL EUSKALTEGIA

Bidebarria kalea, 18
943782496 / euskaltegia@onati.eus

BULEGO ORDUTEGIA:

Goizez: 9:00-13:00
Arratsaldez: 16:00-18:30

18/19 Matrikula epea zabalik
Plazo de matriculación abierta

UDAL
EUSKALTEGIAK



Espetxe politika aldatzeko garaia

Salbuespen legedia alde batera utzita, espetxe politika zuzenbidearen eta justiziaren esparrura bueltatzeko garaia dela uste dute eragile sozial eta politiko gehienek

Espetxe politika aldatuko duela iradoki zuen Pedro Sanchez Espainiako presidentek ekainaren 18an. Zehazki, larri gaixorik dauden presoak eta 70 urtetik gorakoak hurbiltzeaz mintzatu zen. Ez zuen eperik zehaztu, baina, hala ere, itxaropenerako atea ireki du euskal gizartean.

Eta ildo horretan, gero eta gehiago dira euskal presoek bizi duten salbuespeneko egoerari irtenbidea emateko unea iritsi dela uste duten eragile sozial, sindikal eta politikoak; ETAk bere burua desegin ondoren, elkarbizitzarako beste urrats batzuk eman beharra dagoela.

Eusko Legebiltzarrak eta Nafarroako parlamentuak ere espetxe politika berri baten aldeko adierazpenak onartu zituzten ekainean (PPk bakarrik bozkatu zuen kontra).

Ia denek aitortzen dute inoiz

ez bezalako baldintzak daudela Madrilek pausoak emateko kartzela arloan, (Frantziako gobernuak presoak gerturatzeko ari da otsailetik), baina, hemen errealitatea oso bestelako da, tamalez.

LEHEN GRADUAN

Espainiar estatuan gaur egun dauden 286 euskal presoetatik %95 lehen graduan daude, salbuespen egoeran. Espainiako preso arrunten %2,1 baino ez daude 1. graduan.

Lehen graduan egoteak espetxe onurez baliatu ahal izateta eragozten diete euskal presoek, eta ia automatikoki etxetik 500 km. baino urrutia- go egotea esan nahi du, hala baitaude euskal presoek %88.

Aznarren garian onartutako 7/2003 legearen ondorioz, 'terrorismo' delituengatik zigortutako presoek baldintza gogo-

Espainiar estatuan dauden euskal presoek %95 lehen graduan daude, espetxe onurez baliatzeko aukera barik

rragoak esijitzen dizkiete gradu progresioa ahalbidetzeko, eta dagozkien baimenak lortzeko.

Une honetan 100dik gora presoek egina dute 1. gradutik 2.era pasatzeko eskaera, baina espetxe erakundeek eta epaileen ezezkoa jaso dute, "ETArenekin lotura izatea" eta "berriro delitua egiteko arrisku handia" bezalako argudioak erabilia.

'ORAIN PRESOK!'

Urriaren 20an beteko da ETAREN jarduera armatuaren bukaeraren iragarpenaren zazpigarren urteurrena, eta egun horretan manifestazio erraldoia egingo da Bilbon, Sare plataformak antolatu duen 'Orain Presoak' ekimenaren baitan.

Presoen korapiloa askatzeko giltza gizarte zibilean dagoela uste du Sarek, eta dei egiten die herritar guztiei mobilizazioetan parte hartzera. ■

ARRIZABALAGA
Arozlegia

PAKITA
Altzariak

Berezao Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTINDAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA
Okindegia

Ostiral, asteburu
eta jai egunetan
baserriko agia,
egarrezko labean zaita.

Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754

Premiazko eskaerak

1

Dispertsioarekin amaitu eta Presoen gerturatzea

2

Gaixotasun larriak dituzten presoek neurri humanitarioak aplikatzea. Berdin 70 urtetik gorakoei eta haur txikiak dituzten amei ere.

3

Graduen progresioa ahalbidez, espetxe onuz baliatu ahal izateko

4

Zigorren batuketarekin amaitzea; hau da, Frantzia zigorra bete duten presoak, delitu beragatik berriro ez zigortzea Espainian, Europako legedia aplikatuz.

DATUAK

276 EPPKko preso kopurua une honetan. Horietatik 45ek +20 urte damate preso. **211** Lehenengo graduan dauden presoen kopurua. **500** Euskal presoen %88 Euskal Herritik 500km. baino urrutirago daude. **23** preso daude gaixotasun larriekin. 70 urtetik gorako **3** preso daude; tartean, 26 urte preso daraman Joseba Arregi oñatiarra (72 urte).

“ Karmele Altube / Xabin Usandizaga presoaren emaztea

“Presoak hurbiltzeko garaia da, senideon sufrimenduarekin amaitzeko”



Karmele eta Maider ama-alabak, Cordobako espetxera egindako bisita batetik bueltan

Espainiako gobernuak espetxe politika aldatuko duen zantzuak dauden arren, Karmelek ez dauka itxaropen handirik, tamalez. “Oker egongo ahal naiz! Baina urte asko dira “oraingoa bai” entzuten, eta sekula ez da ezer aldatzen, txarrerako ez bada”. Urruntze eta sakabanaketa politika gordinki bizitzea egokitu zaio. Xabin, senarra, Cordoban dago preso azken lau urteotan; aurretik Badajozen eta Jaenen egon zen. “21 urte dira jada, eta oso erreta gaude, presoak ez ezik, senideak ere zigortzen gaituztelako”.

Espetxe politika aldatuko duela iragarri du Espainiako gobernuburu Sanchezek. Nola jaso dituzue adierazpenok? Itxaropenik?

Nik neuk bat ere ez. Eurak, bai, ilusioarekin daude, baina nik, tamalez, ez daukat itxaropen handirik. Urte asko daramagu lelo bera entzuten, “oraingoa bai!”, baina sekula ez da ezer mugitzen, txarrerako ez bada. Mugitu duten bakoitzean, urrutiragotu egin dute. Beraz, ez dakit. Oker egongo ahal naiz!... baina ez dakit.



Cordobako espetxean, etxetik 800 km.-ra dago Xabin azken lau urteotan. Maider alabarekin dago argazkian.

Bera baikor dagoela diozu?

Bai. Ez dakit ze irakurketa egiten duten, baina oraingoa hurbilduko dituztelakoan dago, adinekoak eta gaixo daudenak lehenengo, eta gero besteak.

Azken lau urteotan Cordoban dago Xabin. Aurretik, 10 urte Badajozen eta 5 Janen eman zituen. Urrunketa politika modu gordinean nozitzen ari zarete. Nola eramaten da?

Oso gogorra da. Asteaz zehar lana egiten dugu, denok bezala, eta asteburuan Cordobaraino joan, itzuli (1.600 km), eta hemen bizimoduak aurrera jarraitzen du; ez daukazu bi egun atsedean hartzeko, eta hori da egurra, egurra, egurra eta egurra.

Adinean aurrera goaz, gero eta nekagarriagoa egiten da, eta ikusten duzu denbora aurrera doala eta ez dela ezer aldatzen.

(hurrengo orrira)

“ Urte asko daramagu “oraingoa bai” entzuten, baina sekula ez da ezer aldatzen, txarrerako ez bada. Beraz, oker egongo ahal naiz, baina oraingoa ere ez daukat itxaropen handirik

Espainiar legeria beteko balitz ehun bat presok behar lukete aske, zigorraren 3/4ak beteta. Xabin ere egoera horretan dago, baina, hala ere, oraindik 1. graduan dago, ezta?

Hala da, bai, lehen graduan, isolamenduan, eskubide denak murriztuta, eta espetxe onurez baliatzeko aukera barik. Gradu aldaketarako eskaera egina dute, idatziz, legeak agintzen duen moduan, baina zain gaude.

21 urte darama preso Xabinek. Irteteko datarik ba al dauka? Ofizialki jakinarazi dioten azken dataren arabea, 2021eko uztailean irtengo da. Edozein modutan, gauzak asko aldatzen dira kartzela batetik bestera; pentsa, Xabinekin batera atxilotutako Jose Migel Gaztelu bergararra iaz geratu zen aske.

Nola dago Xabin?

Animoz ondo dago. Urte gogorrenak igarota, argia ikusten hasia da, kaleratzeko eguna hurbilago ikusten du, eta itxaropen horrekin dago.

Euskal Filologia ikasten hasi zen EHUren bidez, baina bide hori ukatu zioten, eta orain Filologia Hispanica ikasten ari da UNEDen bitartez

Irailan (Oñatin) eta urrian (Bilbon) mobilizazioak egingo dira 'Orain presoak!' lelopean. Inoiz baino garrantzitsuagoa izango da jendeak bat egitea, ezta?

Inportantea da, bai, jakina, eta animatzen dut jendea. Baina, egia esan, hainbeste mobilizazio egin ditugu! Hainbeste aldiz bete ditugu Bilboko kaleak!. Ez dakit zer gehiago egin behar dugun. Urte asko dira eta oso erreta gaude. Beti izan dugu jendearen babesa, eta mobilizazioak ondo etortzen dira pilak kargatzeko, baina guk benetako urratsak behar ditugu; Gasteizko kartzelan ere berdin bete



lax Oñatin egin zen Lasterbidean lasterketan parte hartu zuten Karmelek eta Maiderekin. Oso hunkigarriak izan ziren azken metroak, jendearen animo artean

daiteke zigorra, senideok zigortzen ibili barik. Presoak hurbiltzeko garaia da, senideon sufrimendua amaitzeko.

Ezer positiborik atera al duzu guzti honetatik?

Jendea. Pertsona onak ezagutu ditut senideen artean. Herritarrei ere eskerrak eman nahi dizkiet, eta, bereziki, *Mirentxine*-koei, egiten duten lan bikainagatik. Guretzat oso oso lagungarria da halako bidaia luzeak furgonetan egin ahal izatea; bestela, honezkero baztarren bat jota geunden. ■



Espetxe politikaren aldaketa eskatzeko mobilizazioak egingo dira Oñatin eta Bilbon

'Orain presoak' lelopean, espetxe politika aldatzeko garaia dela aldarrikatzeko mobilizazioak egingo dira Oñatin (irailak 29) eta Bilbon (urriak 20). Urrunketarekin amaitzea, presoan gradu progresioa ahalbidetzea, zigorraren batuketarekin amaitzea eta gaixotasun larriak dituzten presoek neurri humanitarioak aplikatzea eskatuko da.

LAU ZUTABE OÑATIN / Irailak 29

Herriko eragile ezberdinek (Sare, Etxerat, Kalera Kalera plataforma eta Gaztetxekeko Asanblada) elkarlanean antolatuta, presoan eskubideak aldarrikatzeko ekitaldia egingo da irailaren 29an, larunbata, 19:00etan.

Oñatiarrak preso dauden kartzela ezberdinak eta erbestea irudikatuz, zutabe koloretsu bana abiatuko da herriko lau puntu ezberdinetatik (Santa Marina, Kale Zaharra, Atzeko Kale eta San Juan kale) Foruen plazara, eta bertan egingo da espetxe politika aldatzeko aldarrikapena. Herriko musika talde eta eragile ezberdinek parte hartuko dute.

'ORAIN PRESOK' BILBON / Urriak 20

ETak jarduera armatuaren amaiera iragarri zuela zazpi urte betetzen diren egunean, manifestazio nazionala egingo da Bilbon, SAREK deituta, presoan egoera bideratzeko garaia dela esjitzeko.



Joseba Arregi Villena - 720km
26 urte preso



Xabier Ugarte
Salamanca - 440km
21 urte preso



Xabin Usandizaga
Cordoba - 810km
21 urte preso

Gure beharra baduzu,
ondo-ondoan gaituzu.
Arrasaten.

Hain ondo zaindu nahi
zaituguncz, Arrasaten bertan
ere artatuko zaitu Zuatzu
klinikako espezialista-taldeak,
20 urtetik gorako esperientzia
duenak.

Ginekologia eta obstetrizia.
Jaio aurreko diagnostikoa.
Bularretako patologia.
Laguntza bidezko ugalketa.

Nafarroa Etorbidea, 4 (bajo)
20500 Mondragón
943 792 018



www.clinicazuatzu.com



Olaiturriko kirolgunea estaltzeko proiektuaren esleipena egin du udalak

MLMR Architecture Consultancy eta Garmendia Cordero Arquitectos UTEari esleitu dio udalak, Olaiturriko estalkiaren proiektua idatzi eta ondorengo lanen zuzendaritza 102.000 eurotan (+BEZ).

'22+2 HABE' ideia izan da, udalak egindako deialdira aurkeztutako 9 proiektuen artean puntuazio altuena lortu duena. Irudietan ikusten den moduan, luzetara eraikitako hormigoizko bi habe handi eta zeharretara ezarritako egur laminatuzko 22 haberen bidez osatuko da estalkia. Egurrezko habeen artean polikarbonatozko panelak jarriko dira, argia iragazi eta euri-urak batzeko.

Herrian erreferentziazkoa espazio berri bat sortzea da helburua; jolaserako, kirola egiteko, kultur ekitaldiak burutzeko edo eguneroko topagune izateko estalitako plaza bat. '22+2 HABE' izeneko aurre-proiektuak espazio zabala proposatzen du, ondoko Ubao errekararekin bat egingo duena. Horretarako, egungo harmailak eraitsi eta beste aldean jartzen ditu, plaza eta errekararen arteko oztopo fisikoak ezabatuz. Irisgarritasuna ere bermatzen du, arrapala bidez.

Orain, behin betiko proiektua idatziko du arkitekto taldeak, eta udalaren asmoa da datorren urte hasieran ekitea lanei.



**GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK**

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarten administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati

PINTURAS
URBIA
MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15



Urrian hasiko dira Etxaluzeko plaza berritzeko lanak

Urrian hasiko dira Etxaluze parkea eraberritzeko lanak. LKS Ingenieritzak idatzi du proiektua udalaren eskariz, eta ondoko irudian ikusten den moduan, plazako zoladura guztia (1700m²) berrituko da, kolore naturaleko asfaltoa erabiliz.

Gainera, hormigoizko hormatxo/eserlekuak eraikiko dira bost puntutan, eta tamaina desberdinetako 13 eserleku ere jarriko dira. Iturri bat ere izango du parkeak, eta argiteria ere berrituko da 14 luminaria jarrita.

Gainera, Bidaurreta eta Aita Lizarralde aldetik parkeak dituen sarbideak ere berritu egingo dira, irisgarritasun unibertsala bermatuz.

Berritze lanek 198.962 (+BEZ) euroko aurrekontua dute, eta bi hilabeteko epea aurreikusten da lanak burutzeko. Aste honetan egingo du udalak lanen esleipena.

Kasablankako jolas parkea egokitu eta hornitzeko deialdia egin du udalak

Inguruko bizilagunen eskera aintzat hartuta, Kasablankan, Garay enpresa ondoko parkea birmoldatzea erabaki du udalak. Egun dagoen jolas-parke txikia kendu eta honako hau jarriko da: belar artifizialeko 20 x 8 metroko jolas anitzerako gunea, futbolerako bi ate, bi saski eta perimetroko itxiturarekin; ziburua, txirrista eta malgukia dituen jolas bana, belar artifizialeko zoladurarekin; eta pin-pong mahaia. Udalak deialdia egin du 38.597 €tan (BEZ kanpo) eta 6 asteko epea aurreikusten da lanak burutzeko.



Ehun urte bete ditu ANGEL UGARTEK

Irailaren 1ean ehun urte bete zituen Angel Ugarte Ugartek. Mikel Biain alkatearen eta Susana Altuna gizarte zerbitzuetako buruaren opariak jaso zituen herri osoaren izenean.

Mila esker
GURE AMETSAK
errealitate bihurtzeagatik!




bai yes

Ingelesa denontzat
📍 Moiuia Kalea 1
☎ 665 700 069



Bost laguneko lantaldeak hartuko du Eltzia taberna



Marco Micciche, Itziar Aranburu, Arantxa Egoskozabal eta argazkian falta diren Alaia Beitia eta Tommaso Galatik kudeatuko dute taberna



Eltziako taberna-kafetegia errentan emateko udalak egindako deialdira hiru proposamen aurkeztu ziren, eta txosten tekniko eta ekonomikoak baloratu ostean, eskaintzarik onena Marco Miccichek aurkeztutakoa dela erabaki du Kontratazio Mahaiak.

Zerbitzua martxan jartzeko falta diren prestaketa lanak (ontziteria, altzariak, dekoratua...) egingo dituzte hil honetan, eta urrian zabalduko dute taberna, jaien ostean.

Aste osoan egongo da zabalik, astelehenetik igandera. Gosariak, pintxoak eta meriendak ere eskainiko dituzte, eta asteburu gauetan bokadilloak eta razioak ere bai.

Eltziako talde eta kolektiboekin elkarlanean jardun nahi dute, eta, tarteka, kontzertuak, erakusketak, bakarrizketak... eta antzeko ekitaldiak antolatzeke asmoa ere badute.

Tabernen ordenantza onartu du Udalak

EAJk kontra bozkatu du, herritarrek behartzen dituelako salaketak jartzera. Alegazio epea dago zabalik, irailaren 24ra arte

Ostalaritza jarduerak arautuko dituen ordenantza berria onartu zuen udalbatzak uztailaren 26ko osoko bilkura, EH Bilduren aldeko eta EAJren kontrako botoz.

Egun indarrean dagoen ordenantza 1993koa da, eta zaharkituta dagoenez, udal gobernu taldeak beharrezkoa ikusten du araudia eguneratzea, segurtasun juridiko handiagoa lortzeko.

Alkateak adierazi zuen, ziuurrenera, epe motzean berriro aldatu beharko dela ordenantza, Jaurlaritzak onartuko duen Jendaurreko

Ikuskizunen lege-dekretura egokitzeko, baina bitartean udal-esparru juridiko bat ezarri nahi da ordenantza honekin, establezimenduek errespetatu beharreko baldintzak zehazteko eta herritarrek eragin negatiborik ez izateko duten eskubidea bermatzeko.

EAJ AURKA

EAJren udal tadeak ordenantza berriaren kontra bozkatu zuen. Jeltzaleen ustez, ordenantza berriarekin 25 urteko atzerapausoa egiten da, 1993ko ordenantzara bueltatuz.

Idoiaga bozeramaleak gogoratu zuen, 2008an, EAJ agintean zela, kontsentsuzko ordenantza onartu zela, bizi-lagunekin eta tabernariekin adostuta. Tabernetan zarata maila mugatzeko eta erregistratzeko kontrol sistema automatikoa jarri zen martxan, datuak udaltzaingora transmititzen zituena. Hala, udalak berak egiten zuen zaraten kontrola, bizilagunak salaketak jarri beharrik izan gabe.

EH Bildu gobernura iristearekin batera, kontrol sistema hori baztertu egin zen, EAJk dioenez, bizilagunen

haserrea eraginez, eta elkarbizitza arazoak sortuz.

Udal gobernuak aurkeztu duen ordenantzaren arabera, zarata mila mugatzeko eta erregistratzeko tresnak jarriko dira tabernetan, baina datuak ez dira zuzenean bidaliko udal zerbitzuetara, eta, ondorioz, bizilagunek salaketak jartzen jarraitu beharko dute, adierazi du EAJk.

Oraingoan, ordenantza mahai ganean uztea eskatu du EAJk, Jaurlaritzaren dekretua onartu arte, eta bienbitartean parte hartze prozesua antolatzea eskatu du, bizilagunen eta ostalarien iritziak jasotzeko.

Udalaren webgunean dago ikusgai ordenantza, eta hilaren 24 arteko epea alegazioetarako.

Catalana Occidente **Mikel Egaña Urrutia**
Aseguruak

Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:

- Heriotza
- Autoak
- Bizitza
- Istripuak
- Ontziak
- Oasiala
- Ebizi-izpiak
- Aurrezkiak
- Laborantza

Hilabete Nazioarteko, behar
608 76 79 04
mikalagane@egantxa.ubibareoccidente.com

Almaraz
Inmobiliari gestioa

Carmelo Pérez de Almaraz

"Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilioi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei diezaguzu".

Tel.: 679411444
www.almaraz.info

BEZEROEI LAGUNTZEA HELBURU

Aseguruen inguruko aholkularitza espezializatua

>> Coinbroker Aseguru Artekartzak plantilla indartu berri du. **Izaskun Bolinaga oñatiarra**, orain arteko lan-taldera batu da. Bezeroari zerbitzurik onena ematen jarraitzea da enpresaren helburu nagusia eta beharrak eskatuta erabaki da taldea profesional berri batekin osatzea.



Izaskun Bolinaga oñatiarrak Coinbroker-eko lan-taldea indartu du.

Pertsona berri bat batu da proiektura.

Bai, gauzak ondo doaz eta zerbitzuan oinarritutako aseguru aholkularitza on bat izaten jarraitzeko, ezinbestekoa izango da Izaskunen laguntza.

Zein da zuen zerbitzuaren gakoa?

Zerbait berritzailea eskaini nahi dugu. Ohiko aseguru etxean lan egiteko moduaz zertxobait alderatu nahiko genuke. Aseguruak ulertzeko filosofia desberdina, bezeroari benetan laguntzea da gure helburua. Hau lortu ahal izateko, aseguru programa pertsonalizatua eskaintzen dugu.

Zergatik da zuen eskaintza interesgarria bezeroentzako?

Aholkularitza pertsonalizatuan oinarritutako zerbitzua jasotzeko aukera dutelako.

Hau lortzeko, bezero bakoitzaren norbanako baldintzak aztertu eta bere beharretara egokitutako programa oso bat diseinatzen dugu.

« Legez, bezeroaren eskubideak defendatzera behartuta gaude »

« Produktuaren kalitatean oinarritzen da gure eskaintza »

« Aseguru programa pertsonalizatua eskaintzen dugu »

Beraz, ez zarete konparatzailer soil bat?

Telebistan agertzen diren online konparatzaileak konpainien prezioak besterik ez dituzte alderatzen. Gu aseguru konpainia eta bezeroen arteko

bitartekariak gara, aseguruaren inguruko aholkularitza espezializatua eskaintzen dugu. Ezberdintzen gaituen beste puntu garrantzitsu bat, kontratatu ondorengo zerbitzua da. Ezbehar/istripu baten aurrean gu garelako bezeroaren kontaktu zuzena kasu guztietan (aseguru etxea edozein delarik). Gainera, legez, bezeroaren eskubideak defendatzera behartuta gaude.

Zein aseguru etxerekin egiten duzue lan?

Merkatuko konpainia ezagun eta indartsuenekin egiten dugu lan (DKV, Reale, Allianz, Axa, Liberty, Plus Ultra-Catalana Occidente, Generali, Mapfre, Zurich, etab.). Batzuetan prezio hobek ematen dituzten konpainiak egon arren, produktuaren kalitatean oinarri-

tzen da gure eskaintza, horregatik merkatuko lehen konpainiekin bakarrik egiten dugu lan.

Aseguruaren inguruko berrietasunik bai?

Sektorean berritzaileak diren hainbat teknologiarekin zerkusia duten berrikuntza ugariekin lan egiten ari gara. Aseguruak eguneratzeko momentua dela uste dugu eta punta-puntako teknologiaz baliatuz, onura asko lortu ditzake bezeroak.

Beste zerbait gehitu nahiko zenukete?

Eskerrak eman nahiko genizkieke guran konfiantza izan duten guztiei. Topikoa dirudien arren, bezeroa eta bion arteko harremanean dago ibilbide on baten sekretua.

JUNTALEKUAK eta HIRIGINTZA TAKTIKOA mugikortasun iraunkorra sustatzeko

Irailaren 16tik 22ra Europako Mugikortasun Iraunkorraren Astea ospatuko da, eta horren harira Oñatiko Eskolako Bidea proiektuaren baitan bi ekimen berezi gauzatuko dira.

JUNTALEKUAK, irailaren 17an

Haur eta gaztetxoek eskolako bidea elkarrekin egin dezaten egokiak diren hainbat juntaleku seinaleztatuko dira herriko puntu ezberdinetan. Ikasleek beraiek egingandako lanketa baten ondoren aukeratu dira juntalekuak, eta seinaleztatu egingo dira goiko irudia izango duen baldosaxo batekin. Irailaren 17an juntalekuen aurkezpen ekitaldia egingo da Errementari plazan, 10:30etan.



HIRIGINTZA TAKTIKOA irailaren 19an

Espazio publikoa nola erabiltzen dugun hausnartzeko balio dute Hirigintza Taktikozko ekimenek. Espazio publikoan kotxeek izan ohi duten gehiegizko protagonismoa salatu eta kalitatezko herriguneak aldarrikatzea izaten da xedea, besteak beste.

Ildo horretatik abiatuta, Eskolako Bidea proiektuaren baitan herriko eskoletako ikasleek hirigintza taktikozko ekimen bat burutuko dute irailaren 19an. Hala, adibidez, Tantziku ikastolakoek aldarrikatuko dute ikastetxearen eta kiroldegiaeren arteko gunean oinezkoek lehenetsasuna dutela, eta aparkatzeko erabiltzen den espazioa partzialki oinezkoentzat berreskuratzeko aukera planteatuko dute.

Ildo berean, Urgain-Errekalde eskolako ikasleek ere eskolako sarreran dagoen aparkalekua partzialki oinezkoentzat berreskuratzeko aukera proposatuko dute. Elkar Hezi ikastetxeek berriz, Arantzazuko Ama kaleko erreil bat oinezkoentzat berreskuratzea proposatuko dute, irailaren 19an eta 20an, neurri horrek izango lukeen eragina aztertzeke. Eta, bestalde, Santa Marinako eraikinari dagokionez, bertako plazatik ikastetxerako sarbide zuzena berreskuratzeko aukera proposatuko dute, oinezkoen pasabide iragankor edo efimero baten bidez.

MUGIKORTASUN ASTEA IRAILAK 16 - 22

Bizikleta Azoka

Irailaren 22an, larunbata, Bizikleta Azoka egingo da, Mugikortasun Astearen barruan. Bigarren eskuko bizikletak, patineteak eta osagarriak salerosteko aukera egongo da Foruen plazan (10:00-13:00).

Materiala batzeko egunak (plazan)

- Irailak 15, larunbata (11:00-13:00).
- Irailak 18, asteartea (11:00-13:00 / 17:00-19:00)
- Irailak 20, osteguna (11:00-13:00 / 17:00-19:00).

Material eta diru itzulketa (plazan)

- Irailak 25, asteartea (11:00-13:00 / 17:00-19:00).

Herribusa dohainik

Mugikortasun Asteak dirauen egunetan, irailaren 17tik 22ra, Herribusa dohainik izango da.



Dokumentala

Mugikortasun Astearen baitan, *En el aire* dokumentala ikusteko aukera egongo da irailaren 19an, asteazkena, kultur etxean, 18:30. Hirietako airearen kutsadura maila aztertzen duen zientzilari talde baten inguruko dokumentala da.

**ARANBURU
ALTZARIAK**

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnosk: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**

*Aran
Hernandez*

Zure ETXEA eguneratu, guztieneko iberrakio
baita, estalitz berrak salmentari edo alkatari erazteko

626 114 382

aranhernandez@aranhernandez.com



Aisialdi Begirale ikastaroa

- » Titulu ofiziala Oñatin eskuratzeko aukera
- » Jaurlaritzak eta Lanbidek homologatuta

Eusko Jaurlaritzak eta, aurten, lehen aldiz, Lanbidek ere homologatutako Haur eta Gazteen Aisialdiko Begirale titulua Oñatin bertan eskuratzeko aukera eskainiko du Udaleko Euskara eta Hezkuntza sailak.

150 ordu teoriko eta 160 praktika ordu ditu ikastaroak, eta larunbatetan (9:00-15:00) izango da, urriaren 27tik maiatzaren 18ra. Kanpoan egin beharreko asteburua (martxoak 16-17) Urtxintxak Pasaian duen aterpetxean egingo da.

Ikastaroan parte hartu ahal izateko baldintza da, teorikoa burutzen denerako 18 urte beteta edukitzea. Gutxienez 10 laguneko taldea osatu beharko da (bestela bertan behera geratuko litzateke), eta gehienez 30. Izen ematea irailaren 10ean irekiko da eta hilaren 28an itxiko. Udalaren



webgunearen bidez (www.oñati.eus) eman beharko da izena. Parte hartzaileek 500 €ko matrikula ordaindu beharko dute, eta ikastaroaren amaieran egoki ikusten dituen dirulaguntzak emango ditu udalak.

Ikastaroaren inguruko informazio zehatza emateko bilera irekia egingo da irailaren 12an, Euskaldun Barria gelan (18:30). Udaleko Hezkuntza sailean (Iñaki Akizu - 943780411 / iakizu@onati.eus) ere eska daiteke informazioa.



Gizarteratzea eta laneratzea sustatzeko hitzarmena

Oñatiko Udalak, Ulma Fundazioak eta Bidebarri Enplegu Zentroak hitzarmena sinatu dute, egoera sozio-ekonomiko delikatuak dauden pertsonen lan merkatu arruntean txertatzeko aukerak eskaintzeko eta, bide batez, gizarteratzen laguntzeko.

Bi urterako sinatu duten lankidetza programa honek bi ardatz nagusi izango ditu: batetik, Ulma Taldearen konpromisoa, ahal duen neurrian Bidebarri Enplegu Zentroan laneratze prozesua amaitzen duten pertsonak aldi baterako kontratatuz; eta, bestetik, diru-laguntza lerro bat sortuko da (Udalak eta Ulma Fundazioak 10.000na euro ipiniko dute), 50 langile baino gutxiago dituzten herriko enpresa txikiei zuzenduta, Bidebarriko laneratze prozesua amaitzen duten pertsonak aldi baterako kontratatuz.

5 urtetik gorako haurrek ere ordaindu egin beharko dute Herribusa

Irailarekin batera sartu da indarrean Herribus zerbitzuaren erabilera arautuko duen ordenantza, eta horren arabera 5 urtetik gorako haurrek ere ordaindu egin beharko dute autobusa erabiltzeagatik. Hauek dira tarifak:

-**Helduak:** 1€. Bonobusarekin (10 bidaiak) 5€.
 -**Adingabeak** (5-18 urte): 0,40 €. Bonobusa (10 bidaiak) 2€. Bestalde, gogoratu, 5 urtetik beherako haurrek heldu batek lagunduta (heldu bakoitzeko 4 ordu, gehienez) joan behar dutela beti.

Eskola Agenda, herriko kondaira eta mitologia ardatz hartuta

Kurtso hasierarekin batera, udaleko Hezkuntza sailak prestatu duen Eskola Agenda jasoko dute hiru ikastetxeetako neska-mutikoek.

Iazko LH 5eko ikasleek landu zuten agenda, Ane Agirre eta Mirari Sagarzazuren laguntzarekin. Gure herriarekin lotura duten kondaira eta pertsona mitologikoak aztertu ondoren, beraien erara kontatu dituzte, bertso eta marrazki bidez, irudimenari eta sormenari bide emanez. Hala, *Aurrekomendiko jentillak*, *Torreuzoko zubia*, *Suge-iturri* haitzuloa, *Gaiztozulo*, *Txamao* edota *Txantxikuak* goitzenaren jatorriari buruzko ipuin eta sineskerak jaso dituzte, besteak beste..





Berdintasun kontseilua sortzeko hurrengo saioa irailaren 19an

▲
Ekainaren 30eko saioiko 'Visual Thinking' edo irudi-akta

- » Udaletxeko pleno aretoan izango da (18:30) » Emakume guztiak daude gonbidatuta
- » Urrian eta azaroan beste saio bana egingo da, Berdintasun Kontseilua osatu aurretik

Hilaren 19an izango du jarraipena Oñatiko Berdintasun Kontseilu herritarra sortzeko udalak abian jarritako parte hartze prozesuak. Ekainean egin zen aurreneko saioa, beste herri batzuetako (Hernani, Azpeitia, Errenteria...) esperientziak ezaugaritzeko, eta orain Oñatiko Berdintasun Kontseiluaren oinarriak, osaera eta funtzionamendua zehazteko unea iritsi da.

Horretarako hiru saio egingo dira, irailean, urrian eta azaroan,



Emakume ugari bildu zen Berdintasun Kontseilua sortzeko egin zen aurreneko saioan, ekainaren 30ean

eta urte bukaerarako kontseilua eratuta egotea nahi du udalak. Lehenengo saioa hilaren 19an izango da, udaletxean, eta dei egiten zaie herriko emakumeei bileran parte hartzera, prozesua ahalik eta aberatsena izan dadin.

Oñatiko udalak berdintasun arloan aplikatuko dituen politiken gidaritza markatuko duen talde sendoa eratzea da helburua, proposamenak luzatuz, eginda-koak ebaluatuz, eta emakumeen saretzea sendotuz.



ETXIAN
Oñatiko inbiliaria berria

Donostian etxea prosteko ere, aukera onenen informazioa eta laguntza

Etxebizitza edo lokal bat saldu nahi duzu Oñatin?

Tel.: 943 71 61 60
www.etxian.net

EtXian 



carpintería
GARIBAI
aroztegia

Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

Gure ustez, hizkuntzak ikasteko,
hizkuntzak bizi egin behar dira

Living
 Lingua

Horregatik, Oñatiko
 MondragonLingua zentroan
zerbitzu berria sortu dugu:

MLspeaking

ikasitakoa
 praktikan jartzeko

... baina badakizu,
MLspeaking zerbitzuaz gain,
 gure betiko metodoekin jarraitzen dugu:

- **mlcertification:** hizkuntza-eskakizunak nahiz tituluak lortzeko metodo eraginkorra. Gure 10 ikasletik 9k gairatzen ditu Cambridgeko azterketak.
- **mladapta:** ordutegi zaila baduzu eta zure denbora ondo antolatu behar baduzu, hauxe da zure aukera.
- **mlplus:** aurrez aurreko eskolak eta online prestakuntza. Gure eskaintza eraginkorra.
- **mlkids:** aprobetxatu umeek ikasteko berez duten gaitasuna.

Ikusten duzun bezala,
 edozein behar asetzeko planak ditugu.

Gerturatu Oñatiko MondragonLingua zentrora eta informatuko zaitugu.

MATRIKULA ZABALIK

mondragon
Lingua

Montxon, 7.
 Tel- 943 71 60 00
 mlcinati@mondragonlingua.com



Euskeria Oñatin

➔ Udaleko Euskara Batzordea

Nola bizi da euskara gurean? Nola bizi gara euskaraz oñatiarrok? Nolako harremana daukagu? Nolakoa nahiko genuke etorkizunean?... Galdera horiei eta gehiagori erantzuten ahalegindu gara azkenaldian, oñatiarren iritziak eta ekarpenak jasota osatu dugun prozesuan.

Aurreko planaren iraunaldia amaiturik, une egokia zen balorazioa egiteko, euskararen egoera aztertzeko eta etorkizunean norantz jo nahi dugun aurreikusteko. Horretan laguntzeko, Udalak Elhuyar Aholkularitza kontratatu zuen, eta otsailetik aurrera, elkarlanean aritu gara, iraila arte.

Proiektuak lau fase edo pauso nagusi izan ditu: aurrelanak, ebaluazioa, diagnostikoa eta etorkizuneko plana. Hona hemen laburbilduta:

- **Aurrelanetan**, dena antolatu eta martxan jartzeko baldintzak sortu genituen.
- **Ebaluazioan**, Planeko dokumentazioa eta betetze-maila aztertu genituen. Oñatiarren iritzia jasotzeko, zenbait herritar elkarriketatu genituen eta inkesta bat jarri genuen Udalaren webgunean.
- Egoeraren **diagnostikoan**, datuak eta iritziak bateratu genituen, egoerari argazkia ateratzeko.
- Azkenik, etorkizunera begira jarri eta Planaren **zirraborroa** egin genituen.

Ebaluazioari dagokionez, neurri handian bete egin da Plana: 2013an abiatua zenean, guztira 89 ekintza aurreikusi ziren, eta horietatik 77 garatu dira osorik edo neurri batean, batez ere Kulturgintzan, Administrazioan eta euskalduntzea-alfabetatzean.

Egoeraren diagnostikoan, berriz, adostasun zabala dago eta ikusi dugu bide onetik goazela, egindako ahalegina ematen ari dela fruituak, baina ezin garela lo geratu, oraindik badagoelako zer egin eta non hobetua Oñatin euskaraz bizitzeko: euskaldunon komunitatea indartu, trinkotu eta

zabaldtu, euskaraz ez dakitenek ikasi eta erraztasunak eman, euskararekiko konpromisoa piztu edo estutu, erabilera areagotu, euskararen kalitatea zaindu eta landu... Oñatiarren iritzia jasotzeko, saio bat egin genuen uztailaren hasieran eta oso aberasgarria izan zen; baina bereziki eskertu eta nabarmendu nahi dugu webgunean jarritako galdetegiari oñatiarrek emandako erantzun bikaina: 234 lagunek erantzun zuten! Oso baliagarria izango zaigu.

Ebaluazioan eta diagnostikoan oinarrituta eta oñatiarren iritziak aintzat harturik, etorkizuneko plana diseinatu dugu, eta orain arteko beste alderdiak baztertu gabe, bereziki jarriko dugu fokua hauetan: etxeko erabilera (edo euskararen transmisioa), gutxieneko euskara-gaitasuna areagotzea eta orokortzea Oñatin eta arlo sozioekonomikoa (lan-munduan eta merkataritza-ostalaritzan).

Orain, hori guztia kontuan izanik, Plana idazten ari gara, eta laster aurkeztuko dugu Euskara Sustatzeko Ekintza Plana. Pixkanaka, bagoaz aurrera, euskara indartzeko eta bultzatzeko lanetan.



Bereziki eskertu eta nabarmendu nahi dugu webgunean jarritako galdetegiari 234 herritarrek erantzun izana. Oso baliagarria izango zaigu



Ekintza Plan berriak honetan jarriko du fokua: etxeko erabilera, gutxieneko euskara gaitasuna areagotzea, eta arlo sozioekonomikoa

EGUR-LAN
 AROZTEGIA
 UNABAR S.A.S.L.
 BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)
 TEL./ FAXA: 943 78 14 59 - linabarsal@gmail.com
 www.egur-lan.es

smk
 san miguel kooperatiba
 943 781 217
 kale barria 8 - 20560 oñati
 www.sanmiguel.coop

Leire Arietaleanizbeaskoa, **ELKAR HEZI**ko zuzendari akademikoa.

Leirek 12 urte daramatza Haur Hezkuntzan irakasle lanetan, 2 etapako koodinatzaile gisa eta ikastetxeko zuzendari akademikoa da iazko ikasturtetik, bera hobeto ezagutzeko ondorengo elkarrizketa egin diogu.

Zer da zuzendari akademikoa izatea?

Batez ere, beste eginkizun batzuen artean, gure Hezkuntza Proiektua definitu eta bikain gauzatzeko ikastetxeko proiektu estrategikoen kudeaketaz arduratzea da, betiere zuzendaritza taldea osatzen duten gainontzeko kideekiko koordinazio estuan.

Zer nolako esperientzia izan zen aurreko ikasturtekoa?

Alzera begira ikasitakoaz eta egindako lanaz jabetzen hasi naiz, egunerokoan murgilduta zaudenean zaila izaten da eta hausnarketa hori egitea.

Aukera izan dut egunerokoan surre egin behar diren jardueren inguruan hausnartu eta lehen ezagutzen ez nituen gaietz askoz gohiago chartzeko.

Ikasturte honi begira, esku artean dituzuenen artean, zein proiektu azpimarratuko zenituzke?

Ikastetxean ditugun proiektu guztien Ama **IKAS KOMUNITATEEN** proiektua da. Honak, Talde elkarraragileak, Tertulia dialogikoak, Batzorde mistoak, Liburutegi luterizatuak eta Gatazken prebentzio dialogikoa bezalako Hezkuntza Jarduera Arma-kastatuak berraztertzen ditu. Honekin batera **MINDFULNESS**, **INTELGENTZIA-ESPARRU**

ANITZEKO LANKETA, IKASTETXEAREN DIGITALIZAZIO ETA BIRTUALIZAZIO

PROZESUAREN GARAPENA... eta hauekin lotuta ikastetxeko ikas-espazioen eraldaketa prozesuaren hasieran murgiltzen hasi gara.

Haur Hezkuntzan ere proiektu Interesgarri batekin zabilzate, ezta?

ESTIMULAZIO GOIZTIARRAREN proiektua martxan jarria dugu ikastetxean. Labur-labur azaltzeko, estimulua garunaren elikadura izanik, ikasleei ahalik eta **AUKERA** gehienak eskaintzean oinarritzen da. Zertarako? Sistema neurologikoaren antolakuntza egokia lortzeko. Prebentzio izaera ere badu, haurren garapenean azaldu daitezkeen zailtasunak detektatu eta lantzeko aukera emango baitugu.

Hilko klaustro osoa gaietz jantzi ondoren, lehen urratsak eman ditugu: Bits ontziklopedikoak eta programa fisikoa jorratu ditugu orain arte. Ikasturte honetako helburua proiektua gorpuztea eta aberastea da.

Ardura handia da Zuzendari Akademikoa izatea?

Bai, noski. Pertsonak hezteaz arduratzea arronka izateaz gain ardurua handia ere bada. Gure lana da Kompetentzietan Oinarritutako Curriculum den



Leire Arietaleanizbeaskoa Maioa, **ELKAR HEZI**ko Zuzendari akademikoa.

Heziberr 2020k markatzen digun ardatza jarrailzea, baina jabetu behar dugu gure lana ez dela hor amaitzen, bereziki zaindu behar dugula **NOLA** egiten dugun heziketa hori, ikasleek bizitako esperientziek, beraien etorkizunean eragina izango baitute.

Bukatzeko, zer da Ereiten Fundazioa?

Ikastetxeko jabea da azken 3 urteotan. Fundazioan partaidotza dugu Oñatiko Parrokia, Beneditarren komunitatea, ikasleek gurasoek eta baita langileek. Berak du ikastetxearen nortasuna, ikusmira eta baloreak definitzeko eta hauek egoki gauza daitezela azken ardura.

Laburbilduz, gizartean behar ditugun pertsonak hezteko eta berraztertze eraginkorra den ikastetxea gure geuk, denon artean, ardura-kidetasunean oinarrituta arazi dezagun.

Etorkizuneko pertsonak eta gizartea EREITEN!



SMHri buruzko erakusketa eta hitzaldia



HOTZ-OÑATI taldeak antolatuta, **SMH** (*Salvamento Marítimo Humanitario* / Itsas Laguntza Humanitarioa) taldea egiten ari den lana ikusi eta gertutik ezagutzeko aukera izango dugu irailaren 13tik 21era, kultur etxean.

Egoe itsasoan (Grezia) sortutako krisi humanitarioaren ondorioz 2015eko azaroan sortutako elkar-atea da SMH. Boluntario-tzan, elkastasunean, gizatasunean, berdintasunean eta duintasunean oinarrituz, pertsonen bizitza babestea da SMHren helburua, itsasoko erreskateak eta osasun-laguntza eskainiz.

Une honetan bi proiektu dituzte martxan: errefuxiatuei zuzendutako klinika Quíos-en (Grezia) eta itsas erreskateak Mediterraneo itsas zabalean. Irailaren 13tik 21era argazki erakusketa egongo da kultur etxean, eta hilaren 21ean (18:30) '1 milla pue-de marcar la diferencia' dokumentala ikusi eta solasaldia egongo da SMHko kideekin.

Eraso sexisten aurkako barne protokoloa

2016ko udaberrian hasi ginen gaztetxe inguruan mugitzen garen hainbat eragile sexismoaren inguruan formatzen eta gune askeen inguruan hausnartzen. Izan ere, sexismoa hor dago gure jendartean, eta, tamalez, baita herri mugimenduetan ere. Gure talde eta asanbladetako jardunari izaera politikoa ematen diogun lez, barne mailan ematen diren botere harreman eta eraso sexistei ere izaera politikoa emateko ariketa izan da egin duguna, genero zapalkuntzak gurean ikustarazi, mahai gainean jarri, eta era antolatu batean kudeatzea erabaki dugu. *Pototak Asanblada Feminista, Andraitz Feminista Taldea, Sortu, Ernai, Gazte Asablada, Ikasle Abertzaleak eta Fan Hemendik* Taldeko kideak izan ginen gai hauen inguruan hausnarketa prozesu bat abiatzeko konpromisoa hartu genuenak.

Hausnarketa eta formakuntza saio auto-antolatu ezberdinak burutu ostean, ondorioak bildu eta eragile bakoitzeko ordezkariorako koordinaziorako erabili dugun "talde motorean" Barne Mailako Erasoei aurre egiteko Protokolo bat diseinatzeko hasi ginen 2018 urte hasieran. Atalez atal joan gara Protokolo hau osatzen: eraso sexistak identifikatu, Protokoloa nori aplikatuko zaion erabaki, nola (noiz, nork...), zein neurri hartuko diren, prozesu ezberdinetarako lagungarri egingo zaizkigun euskarriak bilatu, etab. Erasoa mailakatu egin

ditugu, eta maila bakoitzeko erasoei dagokion neurriko erantzuna ezarri diegu, eredu punitiboetatik aldenduz, onarpenean, erreparazioan eta pedagogia egitean oinarritzen den eredu baterantz hurbilduz.

Aipatutako eragile guztietara igorri genuen hilabetetan zehar idazten joandako Protokoloaren zirriborroa, ekarpenak jasotzeko. Eragiletan, egindako zirriborroaren taldeko irakurketa kritikoa egin eta ekarpenak egin genituen. Gero ekarpen horiek zirriborroan sartu, eta Protokoloaren azken bertsioa osatu genuen koordinazio mailan aritu garen eragile ezberdinetako ordezkariorak.

Herri mugimenduan parte hartzen duten hainbat eragilek landu dute

Ariketa konplexua izan da Protokoloa diseinatzea eta adostea, beraz, urtez urte hobetzen joateko asmoarekin idatzi dugu, praktikatik ikasten duguna txostenean sartzen joango gara.

Protokolo hau onartzen dugun eragileok sexismoaz jabetu eta berandu eta prebenitzea da nahi duguna. Feminismoarekin aliatu eta konpromiso politikoa bezala hartu nahi dugu. Helburua, beraz, sexismoaz jabetzearekin batera, erasoei aurre hartu eta prebentzio lana egitea da. Bestalde, egunerokotasunean normaltzat hartzen ditugun eraso sutilagoei erantzuna ematen joatea ere bada. Eta azkenik, eraso larriren bat egonez gero, kolektiboan, modu antolatu, ordenatu eta adostuan dagokion kudeaketa eta erantzuna emateko gai izatea bilatzen dugu.



Irailaren
16an, Mikel
Goiaingeruaren
Parrokian,
19:00

'Oxigenoa Euskarari 6.000 metroan ere' ekimenari azken hatsa emateko kontzertua

» *Et Incarnatus* orkestra, Mikel Urdangarin, Maider, Petti, Niko Etxart, Nahia Robles-Aranguiz eta Ganbara Abesbatzak parte hartuko dute

Urriaren 10ean abiatuko dira **Oxigenoa euskarari 6000 metroan ere** ekimenean parte hartuko duten 12 gazteak (tartean lau oñatiar) Himalaia aldera. Eta abiatu aurretik azken ekitaldia antolatu dute. Ekitaldi berezia izango da. Agur esateko baliatuko dute espedizio kideek, eta baita eskerrak emateko ere, ekimen hau aurrera ateratzen lagundu duten erakunde, enpresa eta herritar guztiei. Eta, bide batez, espedizioa aurrekontua osatzeko falta diren azken xoxak batzeko lagungarria ere gerta daiteke.

Donostiako *Et incarnatus* orkestra izango da ekitaldiko protagonista nagusia. Mikel Zeberio zuzendariak bat egin du 'Oxigenoa euskarari' ekimenarekin, eta kontzertu berezia prestatuko dutela aurreratu du. Hamabi musikariz osatutako talde bikaina da *Et incarnatus*, musika estilo ezberdinak (jazz, pop, rock, garaikidea...) jorratzen dituena. Mikel Urdangarin, Mai-

der, Petti, Niko Etxart, Nahia Robles-Aranguiz eta Oñatiko Ganbara Abesbatza izango ditu lagun eskenatokian, eta Xerpa musikari ere keinua egingo diote. Pello Zabalak aurkeztuko du. Sarrera, 10 € (-12 urte, 5€), Txokolateixan salgai.

EUSKARAREN INGURUKO SARETZE LANA

Mendizaletasuna, elkartasuna, hizkuntza gutxituei babesa ematea eta euskara munduan zabaltzea du helburu 'Oxigenoa euskarari' ekimenak. Araba, Bizkaia, Nafarroa, Lapurdi eta Gipuzkoako (tartean 4 oñatiar) 15-18 urte arteko 12 gaztek eta 10 xerpa gaztek parte hartuko dute, 23 eguneko espedizioan, Nepaleko Himalaian, 6.000 metroko bi mendi igoz.

Euskara-Xerpa hitzategia prestatu dute elkarrekin komunikatzeko, eta bideo bat ere grabatuko dute espedizioan zehar, ETBn eta eskolaz eskola erakusteko itzuleran.

LENAOk disko berria plazaratu du



LENAO. Iñigo Biain (baxua), Egoitz Olalde (bateria eta ahotsa), Iker Martínez de Zuazo (kitarra eta ahotsa) eta Joxeba Aranburu (kitarra).


DISKOA. Irailaren 6tik aurrera eskuratu ahal izango da 10 €-tan, herriko hainbat puntutan, Elkar dendetan eta sare sozialetan.

KONTZERTUAK. Irailaren 15ean (Arrasate), irailaren 16an (Angelu) eta urriaren 19an (Bergara) emango dituzte aurreneko kontzertuak

Iparraldeko argiak izeneko bigarren diskoa plazaratu du *Lenao* taldeak. Zortzi abesti biltzen ditu lan berriak eta Iñaki Zubia teknikariak grabatu eta nahastu ditu (bateriak Garate estudioan). Lehen diskoko rock amerikar kutsua guztiz galdu gabe, oraingo honetan 80. hamarkadako soinetara ere hurreratu da (*Itoiz*, *The Cure*, *The Smiths*, *Ryan Adams*) kitarra garbiak, *chorus* efektuak eta sonu trinkoak lortuz, lehen diskoko soinu natural eta organikotik pixka bat aldentuz. Facebook-en (*Lenao Taldea*) dago entzungai aurrerapen abestia (*Aitzakia*).

Ezintasunari eta gabeziari buruz hitz egiten dute abestiek, ikuspuntu desberdinetatik, eta hortik dator 'Iparraldeko argiak' izenburua, ez daukagun eta bilatzen ari garen guzti horren irudi bezala.

Irailaren 15ean (Arrasateko Kulturaten, 20:00), **irailaren 16an** (Angeluko Glisseguna) eta **urriaren 19an** (Bergarako Bule taberna) emango dituzte aurreneko kontzertuak.



Kontzejupetik



ARGITARATZAILEA: Oñatiko Udala

ZUZENDARIA: Iñigo Arregi

PUBLIZITATEA: Aratz Losada

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Aratz Losada

KOLABORATZAILEAK: Jerardo Elortza

eta Udal Euskaltegia

INPRIMATEGIA: Gertu

Tirada: 5.500 ale

Lege gordailua: SS-357/91

Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea: publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa

20560 Oñati (Gipuzkoa)

Tel.: 943 78 20 72

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

GUTUNAK

Azaleko argazkia: Oñatiko Udala

Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlaren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 OÑATI | Tel.:943 78 20 72 | Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

Gure nahia da, bereziki, Kale Zaharreko eta San Anton kaleko elkarbizitza berreskuratzea

Jon Kepa Gerrikagoitia eta Lourdes Idoiaga (EAJ-PNVren udal-taldea)

Gaueko zaraten kontua arazo gihurtuta dago aspalditik, bereziki, Kale Zaharrean eta San Anton kalean; tabernetako zaratekin gogaituta bizi dira bizilagun asko azken urteetan.

2008an, EAJ-PNVren udal-gobernuak ostalaritzaren udal-ordenantza onartu zuen. Hain zuzen, zaraten kontrol-sistema jarri zuen tabernetan, zaraten maila erregistratu eta mugatzeko eta egoera gorabeheratsuari irtenbidea emateko asmoarekin. Sistemak lotura zuzena zeukan udal-zerbitzuekin, zaraten neurketa eta inspektzioa egin, eta arau-haustea zigortu ahal izateko. Eskertu egin zuten herritarrek sistema hori, eta egoerak hobera egin zuen nabarmen.

2011n, EH Bilduk gobernua hartu orduko, ordea, akabo ordura arteko inspektzio, kontrol edo muga guztiak! Kale Zahar inguruko egoerak, batez ere, oso atzera egin zuen eta. Baita

Oñatik ere. Izan ere, Bilduren gobernuak 7 urte daramatza ostalaritzaren udal-ordenantza bete gabe; ondorioz, bereziki Kale Zahar ingurukoek 7 urte daramatzate horren ondorioak pairatzen. Egoerari aurre egiteko, EAJren udal-taldeak sarritan aldarrikatu du 2008tik indarrean dagoen ordenantza, zaraten erregistro automatikoa egitea eta udal-zerbitzuetan ikuskatzea eta kontrolatzea. Era horretan, zaraten kaltea nozitzen ari direnek ez dute Ertzantzan salaketa gehiago jarriko, asteburuetan eta jaietan lo egin ahal izateko. Gainera, tabernariak ez diete aurre egin beharko justifikatu gabeko salaketei. Izan ere, prebentzio-sistema bultzatzearen aldekoa da EAJ.

Horiek horrela, EH Bilduren gobernuak oraintsu aurkeztu du ostalaritzaren beste ordenantza-proposamen bat. Baina dokumentu horretan, ez dago jasota zaraten kontrol zuzena eta automatikoa egitea.

Gaueko aisialdiaren aldekoa da EAJ, baina gaueko atsedena ere bermatu behar da. Horregatik, zera proposatu dio Bilduren gobernuari: ostalaritzaren ordenantza-proposamen hori bertan behera uztea eta arazoari benetako irtenbidea emango dion dokumentua lantzea. Alegia, kaltetu guztien iradokizunak, proposamenak, kexak...

aintzat hartuko dituen ordenantza. Horrelaxe lortuko da gaueko atsedena eta elkarbizitza bermatzea, Kale Zahar inguruan bereziki.

Bertan jarraitzen dute

Iulen Romaratezabala eta Iñaki Urizar

Ahaztua pasa eta iraila iritsi zaigu Ahonezkerok. Espero genuen bezala, Guardia Civil-ek herrian jarraitzen dute, espero genuen bezala, beraien pose *ainquenosepaleermisfuertesbrazos-sujetanunarmadefuego* batez errepide bazterretan jarraitzen dute. Ez dezagun, baina, ekainak 30ean jasotakoa alferrikako aldarritzat eman, galdutako beste partida bat bezala, ederra izan zen eta. Tomate landareek behar dute atxurkada txikiz baina usu arnasa hartu, azkenean biltzeko (erortzeko) egon daitezten.

Herritarrok ozen eta garbi utzi genuen aldarrikapena airean: Ez dugu Guardia Civil-a Euskal Herrian nahi, ez ditugu behar. Gogoratu ginen Altsasukoekin: Utzi bakean Altsasu eta askatu bahituta dauden gazteak. Egin genuen dantza, busti ginen, momotxorroak kalera atera, erraldoiak mugitu, jendea batu, zahar, gazte, ume. Ekitaldian zutik eta geldi egon ginen, gehienok euripean. Garbi dugulako



ZURICH

M^o del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel/Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK
PERSOANAK, LERRAK, LUZ PLANTZAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEAK
SUKALDEAK, KODINAK eta ASKEZ GENGARAK

OLAKUA 12 0 4 esk. - 20600 OÑATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77

zein den hainbat urtetan herri honek sobera izan duena, eta sobera izango duena alde egiten duten arte, akainak minik egiten ez diguten arte gorputzean izatea arriskutsua dela badakigulako.

Beraz, jarraitu dezagun herri honetako zapaltzaileak joan daitezen exigitzen. Ezin dugu normaltzat hartu egoera hau: Euskal Herrian bizi dira bertako bizitza zapuztu asmoz, herri bat anulatu asmoz. Hori da beraien lana. Jarraitu dezagun aldarrikatzen: Guardia Civil-a kanpora orain, utzi bakean Euskal Herriko kale, mendi eta errepideak. Eta gure partetik, has gaitezen cuartel-ei eman diezazkiekegun erabilpen ezberdinetan pentsatzen: etxebizitzak, musika, dantza, antzerkia, esku-lanak, ikasgelak, sukaldaritza, gazteak, zaharrak, kirola, asanbladak, lana...

Bejondeizuela! Zorioneko dago txirindulari gazteen inguruko azpiegitura ere: familia, Aloña Mendi Kirol Elkarte, Ulma taldea...

Kadete horien artean dago Aimar Erostarbe txirindularia, uda oparoa eduki duena. Besteak beste, **Euskadiko txapelduna da** 1. urteko kadeteetan, Zeberioako Udaletxearen XXIX. Saria ekainaren 30ean irabazi ondoren. Gainera, bi dominarekin itzuli zen uztailaren bigarren asteburuan Euskadiko Selektzioarekin **Eskolako Espainiako Txapelketatik** (Baños de Moyas, Ourense): zilarrezko domina eskuratu zuen norbanako proban eta brontzezko domina taldekako erlojuaren aurkako lanean. Euskadiko kadete neskak ere ederki ibili ziren Eskolako Espainiako Txapelketa horretan, eta txapeldunak izan ziren

taldekako erlojuaren aurkakoan. Hori da adorea, hori! Balioesten dut, bai, neska-mutil horien ahalegina, gogoa eta lana gero eta hobeto egiteko grina! Oso balio handikoa da, nire iritzian, nesken lana ere, eta agerian utzi behar dugu, beti.

Txirindularitza barru-barrutik bizi izan du Aimarrek txiki-txikitatik, eta Garazi arrebak ere bai. Halaxe bizi du eta bizi izan du haien aitak ere, eta halaxe bizi zen gure etxean gure aita Julianek halaxe bizi zuelako. Euskal Herriko Itzulia, Arantzazuko Igoera, Urkiolako igoera, Donostiako Klasika... urteroko ohiko hitzorduak izan dira guretzat urteetan. Frantziako Tourra ere bai.

Bejondeizula, Aimar, zaren modukoa zarelako eta orain arte lortu duzunaganatik! Baita zuri ere Garazi! Patxo bi!

Bejondeizula, Aimar Erostarbe

Amaia Erostarbe Letamendi

Uztaila Frantziako Tourraren hilabetea da txirindularitza maite dutenentzat. Adierazi daiteke, lotsarik gabe, aurtengo uztaila Oñatiko txirindulari kadeteen hilabetea ere izan dela: Ulma taldea (Aitor Altube, Unax Arregi, Danel Casais, Unai Cueva, Aimar Erostarbe, Aritz Torres) erlojupeko Gipuzkoako txapeldun bihurtu zen uztailaren 15an Legorretan.

OHARRAK, DEIALDIAK ETA AZKEN ORDUKOAK

GAZTELEKUKO SOTOAREN INGURUKOAK

Honen bidez gogoratu nahi dugu Sotoan gutxienezko hainbat elkarbizitza arau daudela, eta arauak betearazteko arduradunak gurasoak direla! Oñatiko Udalak Gaztelekuko Sotoan behin eta berriz berrikuntzak eta hobekuntzak txertatzen dituen bitartean, Sotoko erabiltzaileen partetik behin eta berriz arau-haustekak eta bertako materialaren hondatzeak pairatzen dira. Ez da lehenengo aldia prentsa bitartez kexa azaltzen duguna, eta ez gaude egoera hauek onartzeko prest. Orain arte zenbait neurri hartu izan dugu, eta beraz, hemendik aurrera neurri zorrotzagoak hartuko dira egoera honekin bukatzeko. Sotoko arauak, materiala eta bertako elkarbizitzaren erantzuleak berau erabiltzen duzuen umeen arduradunok zarete, ez ahaztu!

Gaztelekuko zuzendaritza

Bezeroen beharrei erantzuteko prest!



GUALBI
AHOLKULARITZA

- ◆ Kontabilitate administratiboa
- ◆ Fiskalitatea
- ◆ Lan-arloa
- ◆ Kontu-ikuskaritza
- ◆ Merkataritza
- ◆ Abokatuak

Euskadi Etorbidea, 6

Tif.: 943 78 16 48

email: maitane@gualbiasesores.com

www.gualbiasesores.com



>> HAUR ETA GAZTEAK

GURE EKINTZEN BERRI EMANGO DUEN ATALA...

HAUR ETA GAZTERIAKO UDAL ZERBITZUEN UDA!

Azkenengo urteetan bezala, aurtengoan ere ekintzez beteta izan dugu uda; besteak beste, udaleku irekiak, arte udalekuak, kuboko eta topalekuko irteerak, ... Ekintza berezi gisa, aurtengoan "Comic eta ilustrazio tailerra ingelesez" ikastaroa gauzatu da. Milesker gurekin era batera edo bestera parte hartu duzuen guztiei, primeran pasatu dugu eta!! Irailean berriz izango gara bueltan, abentura eta esperientzia berrien bila.



Euskal zinemaren ibilbide petrala

Memoriatik eskas antzean gabiltza euskaldunok, eta Margitalpenetara jo behar dugu jakiteko 1985. urtean ekoiztu zela lehen euskarazko filma. Bai zera! esango du norbaitek. Ez harridura markarik irudikatu! Zer uste zenuten ba? Andu Lertxundik 1985. urtean "Hamaseigarrenean aidanez" erdimetraia filmatu eta bi urte beranduago "Kareletik" zuzendu zuen. Hauxe izan zen euskaraz ikusi ahal izan genuen lehen fikziozko luzemetraia. Euskaraz egindako zineari buruz ari naiz bai, eta ez beste erdarazko hizkuntzetan euskaldunon diruekin ekoiztu diren zinema lanez. Geldi dadila hau oso garbi. Ba horixe.



Agustin Goenaga Urtzelai

ezinbestekoa da jatorrizko bertsioa gaztelania ez den kasuetan gaztelaniazko azpitoluak jartzea". Euskal zinegile xehentzako beste lan karga bat, azpitolatu behar horrek lana zailtzen duelako jakina. "**Kimuak**"en helburua euskal film laburrei bultzada ematea baldin bada, nondik nora erdarazko hizkuntzei tokia egin esparru euskalduna behar zuenean izan? Ez dakit baina edo ni inozoa naiz edota hemen kontraesan peto-peto baten aurrean gaude.

Euskal zinemaren lehen urratsak, neurri handi batean behintzat, eta barka atrebentzia, gu bezalako errealizadore amateurren eskutik etorri ziren. Ikus laukitxoan, eta labor bada ere, irakur ahal duzue euskaraz egindako zinera iristeko zein ibilbide luze eta petrala bete behar izan dugun. Bestalde, gure lanean antzinatasun plus bat daukate, baina inork ez ditu kontuan hartu. Zortzi milimetroko euskarri ziztrin horretan filmatutako zinea, zaletasunez egindakoa, buruko mina sortzen ziguna bai, baina euskaraz egindakoa. Zinegileok lanerako izan genuen baliabide eskasena izan genuela eskuartean nabarmendu nahi dut: 8milimetroko zeluloidea, formatu pobreena, "tomabistas" batekin filmatzera behartzen gintuena. Eta hala eta guztiz gu harro, baina ez harrokeriaz, ez. Enbidia apur bat bai 16mmtan filmatzea ametsa zelako eta 35mmtan ezina, baina jabe ginen bene-benetan euskarazko zinea zela gurea.

Euskal Zine Bilera eta Kimuak

Eta hori guztia, **Zestoako eta Lekeitioko Euskal Zine** bilerei esker. Uste dut inoiz ez zaiela behar beste meritu aitortu, eta esker onaren aitormen gisa esaten dut hau. Zine kritikariek, zine munduko jakintsu harroputzek sekula santan ez dute behar bezala estimatu zinegile amateurren lana, geure lana, eta hor oinarritzen da nire kexa, nire arrangura. Zestoako euskal zine topaketa aspaldi geratu zen bidean, ezinean, baina lekeitiokoek berezko xumetasuna erakutsiz 41. edizioa ospatuko dute aurten; hori da hori gogoa eta kemena. Aupa zuek.

Beste alde batetik, eta film laburren esparruari lotuta ere, "**Kimuak**" egitasmoak jada 20 urte bete ditu euskal film laburren zabalkunderako sare bat eraikitzeke harbide latz horretan. Jaiotza txalogarria Euskadiko Filmategiak kudeatuta, eta Etxepare Euskal Institutoak babestutakoa. Zalantza izpi barik. Baina, beti dago bainaren bat, "**Kimuak**" programaren helburua euskal film laburrak sustatu eta banatzea baldin bada nola liteke "edozein hizkuntzatan egindako lanak aurkeztu daitezke" leloa agertzea baldintzen zerrendan. Harrigarria. Eta are harrigarriago beste hau irakurriz gero:

"Epaimahaiaren EAEkoak ez diren kideen presentzia dela eta,

2018. urtean 78 film aurkeztu dira "**Kimuak**" sailean eta zazpi izan dira aukeratuak. Filmetako bi euskara hutsean daude, beste bi euskaraz eta gaztelaniaz, bat euskaraz eta frantsesez, bat gaztelaniaz eta italieraz eta azken bat grekoz. Atera kontuak, niri ez zaizkit ateratzen eta. Matematika -aditu bate esanetan-beti egon da euskaldunon aurka: 6 euskaldun gehi erdaldun bat berdin 7 erdaldun.

Zinema amets fabrika dela esan ohi da eta hori benetan ederra da, batez ere lotan gaudenean gertaerak edo irudiak sortzeko. Baina gure zinemari, euskal zinemari, erne eta iratzarrita egotea tokatzen zaio, txakur ametsak alde batera utziz.

Planeta euskaldun petral txiki gurea, **xaukena xauk!**

XX.mendeko zinea gurean (labur)

> **Gerra aurretik:** bitxikeria gutxi batzuk filmatu ziren, den denak erdara hizkuntzetan:


- "**Eusko Ikusgaiak**" izeneko zortzi dokumental sorta, folklorea eta euskal ohitura zaharretan oinarritu zen lana. Manuel de Intxaustik filmatuak 1920. hamarkadan.
- "**El mayorazgo de Basterretxe**", 1928.urtean Azkona anaian filma. Fikziozko pelikula Euskal Herriko baserri giroa eta industrializazio garai berria islatzen zuena.
- "**Euzkadi**", 1933. urtean Teodoro Ernardorenak filmatutako dokumentala.
- "**Au pays des Basques**", Iparraldean filmatua. Folklorea islatzen zen hemen ere.

> **Gerra ondoren:** debekua. Ezer ez.

- "**Guernica**", 1950.urtean, Alain Resnais-en filma. Frantses erdaraz egina. Testua Koldo Izagirrek euskaratu zuen "Gure zinemaren historia petrala" liburuan.
- "**Ama Lur**", 1968.urtean Basterretxeak eta Larruket-ena, ikuspuntu nazionalista batetik sortua, baina gaztelaniaz.

> **Franco diktadorea hil ondoren:**


- "**El proceso de Burgos**", "**Tasio**"... gaztelaniaz.
- "**Hamaseigarrenean aidanez**", 1985.urtean Anjel Lertxundirena, euskaraz filmatua.
- "**Kareletik**", 1987.urtean Anjel Lertxundirena. Euskaraz ikusi ahal izan genuen lehen fikziozko luzemetraia.



Oñatiko Raid eta Orientazio Elkarteak sortu dute

» Irailaren 9rako orientazio proba antolatu dute, eta datorren urtean Oñatiko Raid-a berreskuratuko dute. Orientazio Eskola ere jarri dute martxan.

Azken urteotan Raid eta Orientazio probetan aritu izan diren herritarrak elkartu eta OROE taldea (Oñatiko Raid eta Orientazio Elkarteak) sortu dute, kirol hauek ezagutzera eman eta sustatzeko asmoz. Oraindik kirol ezezagunak dira gure inguruan, baina Oñatin bertan 10 bat lagun aritzen dira Raiden Iparraldeko Ligan parte hartzen. Kirol ezberdinak (mendi-bizikleta, trekkinga, tirolina, rapela...) eta proba bereziak uztartzen dituen jarduerak da Raid-a, bikoteka egiten da, eta oso inportanteak dira estrategia eta orientazioa (mapak eta iparrorratza egoki interpretatzen jakitea). Mendia eta abentura gustuko dutenentzako kirol perfektua dela diote OROE taldekoek, eta animatu egiten dute jendea probatzera. Norbaitek probatu nahi badu, jar dadila beraiekin harremanetan (onatiraid@gmail.com edo www.facebook.com/oroe).



“ Mendia eta abentura gustatu ezkerok, kirol perfektua da

ANE MERTZERIA

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Urneen jantziak

Kale Barris, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

OÑATIKO ORIENTAZIO PROBA HERRIKOIA.

IRAILAK 9, IGANDEA, FORUEN PLAZAN, 10:00

Kirol modalitate hau ezagutzera eman eta sustatzeko asmoz, Orientazio Proba herrikoia egingo da irailaren 9an Foruen plazan (10:00-12:00). Hiru. Ibilbide ezberdin egongo dira, zailtasun ezberdinekin, adin guztietako jendearentzat. Herrian bertan egingo da proba, eta partehartzaileek baliza ezberdinak aurkitu beharko dituzte, mapa baten laguntzarekin.



Haurrei, Familiei eta helduei zuzendutako proba izango da, ibilbide eta zailtasun maila ezberdinekin



OÑATIKO ORIENTAZIO ESKOLA.

Iaz jarri zen martxan Oñatiko Orientazio Eskola, eta aurten segida izango du, urrian, herriko jaien ostean. Bi talde osatzeko asmoa dago: Lehen Hezkuntzako 3-6 mailako ikasleena, eta DBH 1-2koena. Zehaztu gabe dago oraindik asteko zein egun eta ordutan izango diren saioak; izena ematen duen neska mutiko kopuruaren arabera zehaztuko da.

Kirola egiteko beste modu bat da; mapak interpretatu, norabidea asmatu eta mapako elementuei zentzua ematen ikasten da. Bakoitzak jartzen du komeni zaion erritmoa.

Izena emateko edo informazioa eskatzeko: asierosi@gmail.com / 676523674

» MOTZEAN

Txirrindularitza. Aimar Erostarbe, Espainiako azpitxapeldun

Aloña Mendi-Ulma taldeko Aimar Erostarbek hiru domina lortu zituen uztailaren 6-8an Galizian jokatutako Espainiako txapelketetan. Iraupeneko proban 2. helmugaratu zen, irabazlearen denbora berean, eta taldeka garaipena lortu zuen Euskadik. Erlojupeko proban hirugarren sailkatu zen oñatiarra. Astebete lehengo Euskadiko txapelketa irabazi zuen Erostarbek, kadete mailan egiten ari den aurreneko denboraldian.



SAN MIGEL SARIAK. Irailaren 8an Junior eta 2. urteko Kadete mailako txirrindularientzako LX. Mikel Deunaren saria jokatuko da, goizeko 10etan Unibertsitate etorbidean. Irailaren 22an Afizionatu mailako proba jokatuko da.

'Artza'ri omenaldi-bazkaria


Irailaren 15ean, larunbata, Xabier Infante 'Artza'ri eskainitako omenaldi-bazkaria (16 urtetik gorakoentzat) egingo da kiroldegian, Oñatiko igeriketaren alde hainbat urtetan egin duen lan bikainagatik esker ona adierazteko. Informazio gehiagorako: Amaia Andueza, Iñaki Guridi eta Xabi Gordo.



Oñatiko IV. Mendi Martxa

Irailaren 15ean egingo da Oñatiko IV. Mendi Martxa. Aurtengoa Aurrekomendi inguruetan izango da, eta, ohi bezala, bi ibilbide egongo dira aukeran: luzea (29,4 km) eta motza (21,5 km).

www.kirolprobak.com webgunean edo Aloña Mendi eta Iturri tabernetan man daiteke izena (federatuak 12€ / federatu gabeak 14€). Egunean bertan ere eman ahal izango da izena, herriko plazan, baina 2€ gehiago ordainduta. Goizeko 7,30etan hasiko da mendi martxa, bai luzea eta baita motza ere. Bidean zehar egongo diren zabor poltsak erabiltzea eskatzen dute antolatzaileek,



Fitness zerbitzuak - ATE IREKIAK - irailak 10 - 14

	Irailak 10 Sept / Astelehena Lunes			Irailak 11 Sept / Asteartea Martes			Irailak 12 Sept / Asteazkena Miércoles			Irailak 13 Sept / Osteguna Jueves			Irailak 14 Sept / Ostirala Viernes		
	Aerobik	Fit bike	Pilates	Aerobik	Fit bike	Pilates	Aerobik	Fit bike	Pilates	Aerobik	Fit bike	Pilates	Aerobik	Fit bike	Pilates
07:30					Fit bike birtoa						Fit bike birtoa				
09:15			Pilates handiena 1			Pilates handiena 1	Body Tono 1	Fit bike birtoa				Pilates handiena 1			
10:15		Fit bike 1	WELLNESS ZERRA	Zumba 1							Zumba 2		WELLNESS ZERRA	Fit bike birtoa	
11:15	Zumba										Zumba				
13:30					Fit bike birtoa						Fit bike birtoa				
15:00	Fit bike Body Tono (1,25 ordu)			Zumba 1	Fit bike birtoa		Fit bike Body Tono (1,25 ordu)	WELLNESS ZERRA			Fit bike birtoa			Zumba birtoa	
17:15	WELLNESS ZERRA	Fit bike 2	Pilates handiena 2			Pilates handiena 2	Zumba birtoa	Fit bike 2				Pilates handiena 2			
18:15			WELLNESS ZERRA		WELLNESS ZERRA	WELLNESS ZERRA	Body Tono 2	Fit bike birtoa			Zumba 2	Fit bike 2			
19:15	Fit bike 3	Fit bike 3		Zumba birtoa	Fit bike 3			Fit bike 3	WELLNESS ZERRA	Zumba birtoa	WELLNESS ZERRA				
20:15	Body Balance 1	Fit bike birtoa	Pilates handiena 3	Zumba 2	Fit bike 4	Pilates handiena 3	Body Tono 3	Fit bike birtoa			Fit bike 4	Pilates handiena 3			

FITNESS JARDUERAK ZUBIKOA KIROLDEGIAN

ATE IREKIAK (irailak 10-14)

2018/19 ikasturtean zehar Zubikoa kiroldegian eskainiko diren fitness zerbitzuak probatzeko aukera egongo da datorren astean (irailak 10-14). Edozein herritarrek parte har dezake saio hauetan, izan kiroldegiko bazkide edo ez. Saio guztiak dohainik dira. Tokia gordetzeko gomendagarria da izena ematea. Pilates-eko hastapen saioetan parte hartzeko derrigorrezkoa da izena ematea. Hiru eguneko ikastaroa da. Ikusi eskaintza goiko taulan.

AHOLKULARITZA ZERBITZUA. E-goitek enpresako monitoreak kiroldegiko harreraren egongo dira goiko taulan adierazitako egun eta orduetan, fitness zerbitzuei buruzko informazioa emateko. Emailaz (onati@egoitek.eus) edo telefonoz (943716375) ere jaso ahal izango da aholkularitza.

IKASTURTE HASIERA. Irailaren 17an emango zaio hasiera ikasturteari Zubikoa kiroldegian. Beheko taulan daukazue fitness-gimnasia arloko eskaintza.

IGERIKETA ETA UR EKINTZAK

Irailaren 3tik 7ra (10:00-13:00 / 16:00-19:00) eman behar da izena Zubikoa kiroldegian, urriaren 15ean hasiko diren igeriketa ikastaroetan eta ur ekintzetan (Aquagym, Aquatrining...) parte hartu ahal izateko.

Irailaren 14an behin-behineko zerrenda argitaratuko da kiroldegiko harreraren eta www.onati.eus webgunean. Erreklamazioak egiteko bi eguneko epea zabalduko da, irailaren 19an eta 20an, eta behin betiko zerrendak irailaren 26an argitaratuko dira.

Kontzejai | 30 | Ipcelik

	Astelehena				Asteartea				Asteazkena				Osteguna			Ostirala	
	Aerobik	Fit bike	Pilates	4. Gela	Aerobik	Fit bike	Pilates	4. Gela	Aerobik	Fit bike	Pilates	4. Gela	Aerobik	Fit bike	Pilates	Aerobik	Fit bike
	07:35						Fit bike birtoa								Fit bike birtoa		
09:15			Pilates Terap. 1				Pilates 1		Gimnasia Terap. 1	Fit bike birtoa	Pilates Terap. 1			Pilates 1	Gimnasia Terap. 1	Fit bike birtoa	
10:15		Fit bike 1	Pilates 7		Zumba 1				Gimnasia Terap. 2	Fit bike 1	Pilates 7		Zumba 1		Gimnasia Terap. 2		
11:15		3. Adina			3. Adina								3. Adina				
13:30						Fit bike birtoa								Fit bike birtoa			
15:00	Fit bike Body Tono (1,25 ordu)				Zumba 2	Fit bike birtoa	Pilates 2		Fit bike Body Tono (1,25 ordu)				Zumba 2	Fit bike birtoa	Pilates 2	Zumba birtoa	
17:15	WELLNESS ZERRA	Fit bike 2					Pilates 4		Zumba birtoa	Fit bike 2				Pilates 4	Zumba birtoa (16:45-17:00)		LH
18:15	Body Balance 1		Pilates 5	Egokitua	Zumba 3	Fit bike 4	WELLNESS ZERRA	Egokitua	Body Balance 3	Fit bike Gaita	Pilates 3		Zumba 3	Fit bike 4	Egokitua	Zumba Gaita (17:00-18:15)	DBH
19:15	Body Tono 1	Fit bike 2	Pilates Terap. 2		Zumba birtoa	Fit bike 5	Pilates 5		Body Tono 2	Fit bike 3	Pilates Terap. 2		Zumba birtoa	Fit bike 5	Pilates 3		
20:15	Body Balance 2	Fit bike birtoa			Zumba 4	Fit bike 6	Pilates 6		Body Tono 3	Fit bike birtoa			Zumba 4	Fit bike 6	Pilates 6		

Gaztelekuko kontzertuen denboraldi berria

» **Berritasun moduan, igande eguerditan kontzertu bereziak programatuko ditugu hilean behin**

Irailaren erdialdean hasiko da Gaztelekuko kontzertuen aro berria, eta oraingoan ere kontzertu ederrez gozatzeko aukera izango da.

Denboraldi berria aldaketa esanguratsu batekin dator, Oñatiko musika zaleei kontzertu ezberdinak dastatzeko aukera emateko gogoz, hilean behineko maiztasunez, igande eguerditan programatzen hasiko da Gaztelekuan. Eguerdiko saio hauetan programatuko den musika, gauean eskaini ohi dena baino "bereziagoa" izateko ahaleginarekin sortutako ekimena da hau.

Gaztelekuko kontzertuen denboraldi berri honen hasieran beraz, besteak beste, *Rude Pride* madrildarrak, edota *Izaro* abeslari Mallabiarra ikusteko aukera izango da. Eguerdiko saioetan berriz, *Caboverde* edo *Los Tiki Phantoms* bezalako taldeek daukaten onena eskainiko dute.



Gaitzerdik jarriko gaitu dantzan Herri Egunean

Oñatiko seikoteak girotuko du Atzeko Kaleko plazako erromeria

Datorren astean aurkeztuko dute udaleko Kultura arduradunek jaietako egitaraua, baina aurreratu dezakegu Gaitzerdi talde oñatiarrak girotuko duela Herri Eguneko bazkalostean (18:30) Atzeko Kaleko plazan egin ohi den erromeria.

Dantzarako gogoz egoten da jendea egun horretan, eta aurten Gaitzerdik izango du Atzeko Kaleko plaza dantzan jartzeko ardura.

Sei lagunek (Irati Barrena, *ahotsa eta panderoa*, Ane Irazabal, *trikitixa eta ahotsa*, Amaia Anduaga, *trikitixa eta ahotsa*, Eneko Galdos, *kitarra*, Xabi Albistegi, *bateria*, eta Unai Barreiro, *baxua*) osatzen dute taldea. Duela hiru urte sortu zuten

taldea, eta gelditu gabe dabilta, herriz herri, Euskal Herriko geografian barrena, tokian tokiko jaiak girotuz, hala nola, Lasarte, Sestao, Legutio, Bakio, Ondarru, Arbizu eta Usurbilen, besteak beste.

Ilusio berezia egin die Herri Egunean jotzeko gonbitea jaso izanak, "egun polita eta plaza ona delako Atzeko Kalekoa; beste urte batzutan dantzan ibili izan gara eta aurten oholtza gainean egongo gara. Saio potentea presatuko dugu, jendeak ondo pasa dezan" esan digute taldekideek.

Aurten beraiek sortutako lehen abestia ('Bizi momentua') grabatu zuten 'Oñati Bizirik-4' diskorako



Euskal Herriko IV. Sagardo lehiaketa Herrikoiairen Finalerdi bat Oñatin jokatu da

Gipuzkoako Sagardogileen Elkarteak antolatzen duen Euskal Herriko IV. Sagardo Txapelketa Herrikoiairen lau finalerdietako bat Oñatin jokatu da irailaren 21ean. Beste hiru finalurrekoak Beasainen, Goizuetan eta Urnietan egingo dira, eta finala Usurbilen, hilaren 29an.

Danera, 45 bat sagardogilek parte hartuko dute lehiaketan, 10-12 finalerdi bakoitzean, eta puntuazio altuena lortzen duten 12 sagardoak pasako dira finalera.

Oñatiko finalerdia Herri Eguneko sagardo dastaketa antolatzen duten herriko sagardozaileek antolatuko dute, eta afari baten inguruan egingo da Larrain Gain elkarrean; 80 bat lagun elkartuko dira bertan, eta afarian zehar txandaka aterako dizkieten sagardoak dastatu eta puntuatu dituzte, norenak diren jakin gabe.

Bertan parte hartu nahi duenak afari txartela (26 €) eskuratu behar du Oñatiko antoatzaileekin harremanetan jarrita (www.sagardoa.eus)



Resurreccion Maria Azkueren omenez, Olaitturiren aurtengo antzezlana

Euskaltzaindia Oñatin sortu zeneko mendeurrena betetzen da aurten, eta lehendabiziko lehendakaria izan zen Azkueri eskainitako antzezlana eta hitzaldi zikloa prestatu ditu Olaitturri kultur elkarteak

Resurreccion Maria Azkue eta Euskaltzaindia antzezlana taularatuko du aurten Olaitturri kultur elkarteak, orain dela ehun urte Oñatin ospatu zen Eusko Ikaskuntzen lehen kongresua eta Euskaltzaindiaren sorrera gogoratzeko.

Kultura mailan Oñatin eta, beharbada, Euskal Herri mailan sekula egin den ekitaldirik garrantzitsuena izan zen 1918ko kongresu hura, eta Olaitturri kultur elkarteak bere omenalditxo eskaini nahi dio, mendeurrena betetzen den honetan.

Eta horretarako Resurreccion Maria Azkueren figura hartu dute ardatz edo lotura gisa, antzezlana idatzi eta zuzendu duen Iñazio Irizarrek azaldu digun moduan. “Euskal Herriak kultura mailan izan duen per-



tsonarik handienetako bat izan da Azkue. Euskaltzaindiaren bultzatzaile nagusia izan zen, eta erakundearen aurreneko lehendakaria. Hizkuntzalaria ez ezik, musikologoa ere bazen, kantu bilduma zoragarria osatu zuen, eta horrek aukera ematen digu, haren kantak tartekatuz, ikuskizun arin eta zozagarria

osatzeko”.

R. M. Azkueri eskainitako omenaldi bikoitza izango da. “Bere kantutegiko zazpi kanta abestuko ditugu, probintzia bakoitzeko bana, eta, bestalde, euskara batuaren sustatzaile sutua izan zenez, emanaldiaren erdian *Unibertsitateko amodio istorioa epaitu zenekoa* lana tartekatuko dugu, euskara batu eta jasoan, Azkueren omenez”.

HIRU HITZALDI

San Migel egunez estreinatuko dute antzezlana, parrokian (17:00), eta bi egun lehenago aurre-estreinaldia, Santa Ana antzokian.

Baina, antzerkira mugatu barik, aurten hiru hitzaldi ere antolatu ditu Olaitturri (ikus egitaraua ondoko orrian) antzezlana girotzeko.

▲
‘1760.
Unibertsitateko
amodio istorioa
epaitu zenekoa’
antzezlaneko une
ezberdinak



2010ean Txamao antzezlanaren taularatu zuen Olaitturri elkartearen aktore taldea


➔ Nor izan zen Resurreccion Maria Azkue

Resurrección María Azkue Aberasturi (Lekeitio, 1864 - Bilbo, 1951) Euskaltzaindiaren sortzaile nagusia eta lehendabiziko lehendakaria izan zen 1919-1951 artean. Askoren ustez, Euskal Herriak izan duen hizkuntzalari eta euskalaririk bikainena eta saiatuena.

Bere obrarik behinena, 1905-1906an argitaratutako hiztegi hiru-eleduna (*Diccionario Vasco-Español-Francés*) izan zen. Euskal Herri osoan barrena ibili zen hainbat urtez, han-hemengo berbak eta esapideak jasotzen, eta hizkuntz-altxor bikaina osatzen.

Morfología Vasca (1923) eta *Gipuzkoera osotua* (1935) ere argitaratu zituen, euskara idatzi batua proposatuz.

Hizkuntzalaritzan ez ezik, beste alor batzuetan ere (musika, erlijio-literatura, antzerkia, eleberria...) ondu zituen lanak. Hala, aipamen berezia merezi dute *Cancionero popular vasco* (1918) herri-kanten bilduma zoragarriak, eta *Euskalerrriaren Yakintza* (1935-47) euskal folklorea eta etnografiari buruzko ikerketa eta bilduma itzela. Zartzuela, opera eta oratorio batzuk ere idatzi zituen, eta baita zenbait eleberr ere (*Bein da betiko*, *Batxi Guzur* eta *Ardi Galdua*).



➔ Kultura hamabostaldia / egitaraua

HITZALDIAK



► **IRAILAK 18, ASTEARTEA** / kultur etxean, 19:00
 -Gaia: **Euskal Ikasketen Lehen Kongresua. Oñati - 1918**
 -Hizlaria: Iñazio Irizar (Olaitturri)
 -Aurkezlea: Karmen Biain (Olaitturri)



► **IRAILAK 20, OSTEGUNA** / kultur etxean, 19:00
 -Gaia: **Azkue, lehen euskaltzainburua: euskara menditik hirira jaisteko ametsa (1864-1936)**
 -Hizlaria: Jurgi Kintana (EHU/UPV)
 -Aurkezlea: Pruden Gartzia (Euskaltzaindia)



► **IRAILAK 25, ASTEARTEA** / kultur etxean, 19:00
 -Gaia: **Gerraosteko Euskaltzaindiaren historia kulturala: 1936-1954**
 -Hizlaria: Antton Ugarte (Donostia Kultura)
 -Aurkezlea: Ana Mari Markuleta (Olaitturri)

ANTZERKIA

► **IRAILAK 27, OSTEGUNA**
 'Resurreccion Maria Azkue eta Euskaltzaindia'
 Aurre-estrenaldia (dohainik).
 Santa Ana antzokian (19:00)

► **IRAILAK 29, LARUNBATA**
 'Resurreccion Maria Azkue eta Euskaltzaindia'
 Estrenaldia.
 Mikel Goiaingeruaren parrokiaren (17:00)

Sarrerak: Txokolateixan salgai, irailaren 12tik aurrera. Prezioa: Aurrez, 6 €; egunean bertan 10 €. Antolatzailea: Olaitturri Kultur Elkartea (<http://olaitturri.blogspot.com>)

20 URTE ZIZTU BIZIAN PASA DIRAI

ESKER ANITZ NIRE AMETSAREN BIDELAGUN IZATEAGATIK!

ZURE FIDELTASUNA, NIRE OINARRI!

ORAIN, ALTUERA BERRIAK ESKALATZERAI

ORAIN, ESTANDAR BERRIAK EZARTZERAI



DIETISTA · NUTRIZIONISTA & COACH

651 70 17 41

amaiadielista@gmail.com

www.amianutrizioa.com

Urte askotan zuekin

Jalone San Miguel Ugarte



MAPFRE

OÑATI



Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es

AGENDA

09

IRAILA

AGENDA

+ INFO

Eskaneatu ezazu QR kode hau agendako deialdi guztiak ikusi ahal izateko.



ODOL ATERALDIA

> **IRAILAK 14 / 17:00-19:00**
Enpresagintza fakultatean, 17:00etatik 19:00etara.

HITZALDIA

> **IRAILAK 18 / 17:30**
'PREBENTZIOA ETXEBIZITZAN'
Pake Leku elkarteak antolatuta. Hizlaria: Oñatiko Suhiltzaileak . Pake Leku



IKASTAROAK

> **IZEN EMATEA**
PAKE LEKUKO IKASTAROAK
Pake Leku elkartek ikasturte berrirako antolatuko dituen ikastaroetan (**Bitxigintza, Areto dantzak, Euskara, Informatika, Irakurketa Taldea, Pintura, Memoria tailerra, Orratz lanak, Solfeo eta Yoga**) parte hartu nahi duenak, irailaren 24a baino lehen eman behar du izena.

Rude Pride taldearen kontzertua

> **IRAILAK 15 / 22:30**
Gaztelekuan

Madril hiriko hegoaldeko *punk oi!* banda oldarkorra da Rude Pride, Euskal Herrian jarraitzaile mordoia dituena. *Reggae, soul* edo *ska* munduan ibilbidea egindako musikariek osatzen duten taldea, eta *Oi!* gordina jotzeko gogoz elkartu ziren. Gaztelekuan izango ditugu. Aurretik, Arrasateko The Potes taldeak joko du. Sarrera: 8€ (Gaztelekuan salgai).

DANTZALDIA

> **IRAILAK 14 / 18:00**
JABI SOUND
Pake Leku elkarteak antolatutako dantzaldia, Jabi Sound DJak girotua. Pake Leku.



KONTZERTUAK

> **IRAILAK 16 / 19:30**
UNIDAD ALAVESA
Ataungo folk-rock taldea Itturri tabernan

> **IRAILAK 21 / 22:00**
WOOD STRINGS
Rock akustikoa egiten duen Aretxabatetako taldea Itturri tabernan

DANTZAK

> **IRAILAK 16 / EGUN OSOAN**
HAUR DANTZARIEN EGUNA
Oñatzek antolatuta. Euskal Herriko txoko ezberdinetatik etorritako 300 bat dantzari ariko dira kalez kale. Herriko kaleetan.

DANBORRADA

> **IRAILAK 22 / 18:00**
HAURREN DANBORRADA
Herriko jaiak badatozela iragarriko dute herriko neska-mutikoek danborrei eraginez. Herriko kaleetan.

ARTZAIN TXAKURRAK

> **IRAILAK 23 / 10:30**
59. ARTZAIN TXAKURREN TXAPELKETA
Nazioarte mailako artzain txakurren txapelketa. Santa Lutzia zelaian

BOLAJOKUA

> **IRAILAK 23 / 16:00**
HERRIKO BOLO TXAPELKETA
Kurtze Baltz elkarteak antolatuta, San Migeletako herri mailako txapelketa. San Martingo bolalekuan,



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tfona: 943 78 11 15 • Faxe: 943 71 82 50



JAIXAK

- > **ATZEKO KALEKO JAIXAK**
Irailak 7 -9.
- > **SAN MARTINGO JAIXAK**
Irailak 14 - 16.

BISITA GIDATUAK

- > **IRAILAK 15 / 12:00**
BISITA MITOLOGIKOA
Oñatiko turismo bulegoak bulegoak antolatutako bisita berezia, Sancti Spiritus unibertsitateko iruditeria ulertzeko. Turismo bulegoan

MUS TXAPELKETA

- > **IRAILAK 15 / 12:00**
SAN MIGEL TXAPELKETA
San Migeletako MUS txapelketa. Izen ematea: 15:30-16:15. Olakuako plazatxoan

MENDI IRTEERA

- > **IRAILAK 16 / 09:00**
KONTRABANDISTEN BIDEA
Arantzazuko Parketxeak eta Arantzazuko Adiskideek antolatuta, Kortakogain eta San Juan Artia arteko ibilaldia. Izen-ematea: 943782894,

IKASTAROA

- > **IRAILAK 8 /**
UR SOROSPIDETZA
(BIRZIKLAKETA)
Zubikoa kiroldegian. Ordutegia: 08:00-14:00 /15:00-20:00. Prezioa: 120€. Baldintza: ur sorosle titulua izatea. Plaza mugatuak (943716375).

'EUSKAL MITOLOGIA' IKUSKIZUNA

- > **IRAILAK 21 / 22:30**
Kirrukuako zelaietan

'Euskal mitologia, gure historia' izeneko ikuskizuna eskainiko du Ganbara Faktoriak hilaren 21ean, Kirrukuako zelaietan (Garay finkako berdegunean). Euskal mitologiaren inguruko ikuskizuna da, zuzeneko musika, antzerkia eta argi nahiz soinu efektu bereziz osatua, eta agertoki paregabea. Ganbarak orain arte prestatu duen kale ikuskizun ikusgarriena izango da, zalantza barik. Sarrerak (nagusiak 15€ / haurrak 12€) Txokolateixan eta www.ganbara.sacatuentrada.es atarian. Takillan 3€ garestiago.

IKASTAROA

- > **IRAILAK 17-20 / 24-27**
YOGA, Hastapen ikastaroa
Sanatana Dharma Oñatiko Yoga Eskolak antolatuta. Yoga probatu edo praktikatzen hasi nahi dutenentzat. 8 eguneko ikastaroa (19:30-21:00). Izen-ematea eta informazioa: yogaonati@gmail.com edo 610 953 794

LIBURUTEGIKO BERRIENAK



Euskal Musika
"Ibilbita ikasten da erortzen"



Euskal Musika
"Ni naiz izotz erregina"



Euskal Musika
"Aingurak"



Euskal Musika
"Tenpluak erre"



Euskal Musika
"Mugiro bila"



Euskal Musika
"Eguzki gorri bat"

MERKATU TXIKIA

- > **ILEAPAINZAILEA** behar da, esperientziaduna, berririkitzera doan ileapaindegi baterako. Harremanetarako: 637036195 (Agurtze) / a.intza@hotmail.es
- > **SALGAI** hiru balkoi oso, bi atekoak, haritz egurrezkoak, Climalit kristal bikoitzekoak. Neurriak, balkoi osoa, itxita, ate biekien: 1,05 m. (zabalera) x 2,06m. (altuera). Kalitate onekoak. Prezio negoziagarria. Deitu: 656 710 411.

GUARDIAKO FARMAZIAK



- ANDUAGA San Lorentzo 3, 943 78 21 16**
Irailak 19, 20 eta 28. Urriak 6, 7, 8 eta 9.
- IGARTUA Kale Zaharra 1, 943 78 01 22**
Irailak 6, 10, 12, 14, 15, 16, 21, 22 eta 23. Urriak 1 eta 2.
- GARATE Kale Barria 42, 943 78 05 58**
Irailak 7, 8, 9, 11, 13, 24 eta 25. Urriak 3 eta 4.
- JULDAIN Kale Barria 6, 943 78 11 28**
Irailak 17, 18, 26, 27, 29 eta 30. Urriak 5.



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxe: 943 71 62 40

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

<ul style="list-style-type: none"> • Administrazioa • Informazioa • Salmenta 	<ul style="list-style-type: none"> • Haziendarekin • Trafikorekin • Herentziak, eta abar
---	---

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teletel.es

Santa Marina (III)

> Jerardo Elortza eta Xabier Zelaia

Goiko plaza eder honekin jarraituz, Santa Marinaren nortasuna aspalditxotik nabarmentzen duten beste bi eraikin garrantzitsuren gorabeherak eta ezaugarriak azpimarratuko ditugu gaurkoan: eskolak eta iturria.

ESKOLAK

Aurreko batean ermitari buruz aritu ginenean, Santa Marina izeneko elizatxo klasikoa bota eta orube hartan **mutikoentzako herri-eskolak** eraiki zirela esaten genuen. Hori **1864an gertatu zen Kasimiro Gerrikoren alkatetza-denboran**. Obrak urte pare batean burutu zituzten, **Pedro Belaunzaran arkitekto eza-gunaren proiektuaren arabera**; Urrutxu aldeko kanposantu berriaren planoak ere orduantxe taxutu zituen Belaunzaranek. Harrezkero, aldaketa askorekin bada ere, ikastetxe desberdinak egon dira gaur egunera arte Santa Marina plazako goiko alde horretan.

XIX. mendean mutikoentzako eskoletarako ez ezik, irakaskuntza mailako **beste zeregin batzuetarako ere baliatu ziren ikastetxe hartaz** haurren ohiko klase-orduetatik kanpora: helduen eskola 1868an; domeketako eskola 1884an; gau-eskola 1885ean; marrazketa-akademia 1886an; musika-eskola 1887an. Egia esan, bestelako erabilera horietako batzuek ez zuten luzaroan iraun.

XX. gizaldian **historia oso gorabeheratsua** izan zuen Santa Marinako eskolak. Erlijioso maristak itxi berria zen unibertsitate zaharrera Frantziatik 1903an etorri zirenean, herriko mutiko gehientsuenak eurenganatu zituzten eta herri-eskolei ikas-

le gutxi geratu zitzairen. Baina 1928an unibertsitateko eraikinean bigarren mailako institutua jarri zelako, maristek Oñatitik alde egin behar izan zuten.

Beraz, premiak eraginda, **piztualdia eduki zuen eskola publikoak gerra aurtxoko zazpi-zortzi urte haietan**. Santa Marinan eta herriko beste hainbat tokitan ikasgelak moldatu behar izan zituzten berrehun bat mutikorentzat. Bitxiena zera izan zen: larrialdi hartan udalak hitzarmen bat sinatu zuela **Oñatiko kanonigo laterandarrekin mutikoen herri-eskoletako irakasle izan zitezten, maisu nazionalekin batera**. Eskolak publikoak izaten jarraitzen zuten, noski, eta erlijioso agustinoek udal maisu tituluak zeukaten.

Laster iritsi zen II. Errepublika (1931), baina irakaskuntzak bere horretan segitu zuen Oñatin. Dena den, gobernuaren aginduz **santokristoak**, gurutzeak alegia, **eskoletako hormetatik desagertu** zirenean eta mutikoez **irakasle laterandarrak** egun batetik bestera **habitorik gabe**, paisanoz jantzita, ikasgelan ikusi zituztenean, ezusteko galanta hartu zuten ikasleek nahiz guraso batzuek. **Bizente Meababasterretxea** bizkaitarra izan zen Santa Marinan irakasten jardundako maisu laterandar horietako bat.

Gerra madarikatuak, ordea, **hankaz gora ipini zuen** lehen mailako irakaskuntzaren eta eskola publikoen antolamendu kurioso hura. Agintari militarrek 1936ko udazkenean herrian sartu ahalaz bat, galbahetik pasatu zituzten funtzionario publiko denak eta horietako **asko lanik gabe gelditu ziren, agustino-irakasle guztiak besteak beste**; euskaltzaleegiak omen. Atzerrira alde egin behar izan zuten, hemen ez baitzen haientzat giro. Ingalaterrara eta Frantziara jo zuten lehendabizi, Argentinara geroago.

Zenbait hilabete batere eskola barik egon ondoren eta behin behineko maisu batzuekin aritu eta gero, mutikoen arazoari nolabaiteko konponbidea emateko, **gerra amaitzean, maristak ekarri zituzten berriro unibertsitate zaharrera**, handik institutua ere kendu egin baitzuten 1936an. Horrenbestez, **Santa Marinako eskola publiko oso ikasle gutxirekin geratu zen**



Santa Marinako herri-eskola 1966 aurretik.



Milagrosa ikastetxea 1969an.

atzera; guk horrela ezagutu genuen urte askoan. Garai hartan udal bandak ere erabili zuten hango lokal bat entseguak egiteko eta musikari berriak prestatzeko, **Antonino Ibarrondoren** ardurapean. Herri-hizkeran *txaranga* esaten zitzaion musika-eskola hari.

Herri-eskolatarako 1864-1865ean jasotako eraikuntza horrek **aldakuntza nabarmenak** izan zituen **ehun bat urte geroago**: erlijioso maristek 1963an Oñatin irakasteari berriz utzi behar izan ziotenean, plaza nagusiko azoka gaineko eskola handitzea erabaki zen; maristetan nahiz Santa Marinan zebiltzan mutiko gehienak ikastetxe berri horretara aldatu ziren. Bestalde, herriko ospitalea 1966an eraitsi zenean, bertan karitateko monjek aspalditik zeukaten neskontzako *Milagrosa* kolegioari hutsik zegoen Santa Marinako eskolan bilatu zioten kokalekua, orduko udalarekin tratu bat egin ondoren. Hartarako pisu bat gehitu zitzaion jatorrizko eraikinari 1967 aldera.

Geroztik ere beste **mudantza sakon batzuk** izan dira ikastetxe horretan, trantsizio-garaitik aurrera bereziki. Oñatiko nesken kolegio erlijioso biek (karitateko mojen *Milagrosa* eta beneditarren *Santa Eskolastika*) bat egitea erabaki zutenean, **bestelako norabidea** hartu zuten Santa Marinako eskola horrek ere: ordura arte erdara hutsean ematen zen irakaskuntza **pixkanaka euskaldunduz joan zen**; ikastetxe erlijiosoan izanik ere, urte gutxiren buruan **maisu-maistrak sekularrak bilakatu ziren**; **ize-na ere aldatu** zuten, *Mikel Aozaraza* lehenik eta *Elkar Hezi* geroago; lehenagotik hasiak ziren **ikasketak neska-mutilei** batera ematen; eraikinari dagokionez, **bigarren pisu bat jaso** ziotela adierazi behar da; hasierako arkitektura-elementu bakan batzuk soilik gordetzen ditu fatxadaren goiko aldean.

ITURRIA

Santa Marinako plazaren **beste ezaugarri nagusi** bat erdi-erdian duen **iturri ederra** da. Aurretik ere beste bat egon ei zen. Iñaki Zumaldek *Historia de Oñate* liburuan dioskunez, **XIX. mendearen lehen urteetan** Iturritxon, San Anton plazatxoan eta **Santa Marinan** iturriak jarri ziren Aloña-azpiko Antzuabarreko iturburutik ekarritako urekin. Lehentxeago San Migel parrokiako kanpandorre berria nahiz herriko udaletxe dotorea proiektatu zituen Manuel Martin Karrera arkitekto beasaindarrak moldatuak ziren hartarako planoak.

Baina gaur egun **ikus dezakegun iturria XIX. gizaldi horretako bukaera** aldekoa da. Beste atal batzuetan adierazi dugu Oñatiko kale-gunean **iturri monumental batzuk** jartzeko egitasmoa Juan Karlos Alzaa alkateak 1880-1882an gauzatu zuela. San-

ta Marinako hau ere orduan ipini zen. Bost **iturri horien zirriborroak Kasto Zabala eta Pedro Jose Astarbe** bizkaitarrek **marraztu zituzten**; bi arkitekto hauek hilerri berriko kapera neoklasikoa burutu zuten orduantxe; eta Astarbek kanonigo laterandarren komentua eta eliza neogotikoa geroxeago.

Iturrian oinarria eta gorputzaren zati bat hareharrizkoak egitea erabaki zen eta **irudiak burdinazkoak**. Burdin lanak Parisetik ekialderantz dagoen **Sommevoire** herriko **A. Durenne** enpresan moldatu ziren. Santa Marinako honek **harrizko aska borobil handia** dauka eta **erdiko gorputz guztia burdinazkoa**. Aska beheko alde guztiaren jabe da; askaren erditik gora burdinazko zutabe moduko bat altxatzen da, goiko partean **gurutze latinoaren itxura** hartzen duelarik.

Gurutzea hiru emakumeren imajinek inguratzen dute, **bertute teologalak** irudikatzen dituztenak, **hots, fedea, esperantza eta karitatea**. **Bakoitzak bere ikurra** darama aldean ezaugarritzat: **sinesmenak** edo **fedea gurutzea**; **itxaropenak** edo **esperantzak aingura**; eta **maitasunak** edo **karitateak bihotza**. Irudi hauen azpian **lau aingerutxoren buruak** ageri dira, aho zabalik; **dirudienez, hasieran ahotxo horietatik kanporatzen ziren iturriaren ur-txorrotak**. Hau eta Iturritxokoa bakarrik dira elementu apaingarrien artean gai erlijiosoak erakusten dituztenak: **Iturritxon Arantzazuko Ama Birjinaren irudia** ageri da eta **Santa Marinan aipatu berri ditugunak**.



Santa Marinako iturria, 1880.

K. Zabala eta P. J. Astarberen marrazkia.

IBURRUST
TABERNA • JATETXEA
Bidebarrieta 6
Tel.: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOIA



ITTEN BAT

(*) Itten: arrastua, pistia

KONTU KONTARI

*Baba-motorra

Gure denporan badakik zela ibiltten giñan danerako? Baba-motorrian, pedalai eragittekuan. Halakorik etxaguan! Pedalai eragin, eta aurrera!

Geeruago, baiña geeruago, erosi giñuan gasoliña-motorra eta harekin fanda gagozak gu Lizarra alderaiño be, kazara, txakurra hanka artian hartuta.

Baiña horren aurretik, ezkondu eta geero be bai, bizikletan, baba-motorrian guk esaten gotsan moduan, goizian jaiki eta lanera, eguerdixan buelta eta atsaldian berriz, eta jaiegunetan etxeko lanak modututa euki ezkeru, Debaraiño eta Zumaixaraiño be faten gintzuan pedalai eragiñez; hortik etara kontuak bizikleta gaiñian zenbat ibillitakuak garien!



*Baba-motorra: garai batian babia zan oiñarrizko janarixa, orduko "gasoliña"; hortik dator babiaren inddarrez mobitten zan ibilgailluari baba-motorra esatia.

Billatu aditz honein sinonimuak

- | | |
|--------------------------|---|
| 1. Pinttau | A. Ikasi |
| 2. Ernari egon | B. Erne egon |
| 3. Estudixau | C. Piztu |
| 4. Irakutsi | D. Itxurak egin |
| 5. Argi egon, arlet egon | E. Animalia kumea egiteko egon |
| 6. Bizittu | F. Hurreratu |
| 7. Plantak egin | G. Urrundu |
| 8. Bardinddu | H. Ustea konplitu, esperotako emaitza lortu |
| 9. Honuztu | I. 1. Erakutsi 2. Irakatsi |
| 10. Haruztu | J. Bete, ase |

Lotu espresio honeik bakoitza bere esanguriarekin, ezagutu eta eballi

- | | |
|---|--|
| 1. ¹ Kiko fatia edo ibilttia | A. Hanka baten gaiñian ibilli edota jolas egittia |
| 2. Atxilipurdi egittia | B. Agua beheruntz begira etzindda jartia |
| 3. Ahuzpez jartia | C. Buruzgain egittia |
| 4. ² Arretxiko eruatia | D. Baten baten sorbalda gaiñian fatia hankak aurrekaldera jarritta |
| 5. Zankárranka, zankarranketan | E. Baten bat bizkarrian eruatia |

¹"Kiko fatia" aditzetik, *arre kiko!* deiza dator

²"Aburritxiko" be ebalten da



Ehun urte aste honetan

Bai, ehun urte beteko dira aste honetantxe Eusko Ikaskuntza Alkartia sortu eta gure herrixan bere lehenengo Batzarra ospatu ebenetik: 1918ko agorraren 1etik 8ra billera eta hitzaldi inportante ugari izan ziran unibersidade zaharrian gai desbardiñen gaiñian; plazan eta pelotalekuan jolas, joko eta erakustaldi asko eskiñi xaten herrittarairi; Garaiñeko fabrikan egokittutako areto zabalian hainbat kontzertu eta teatro-emunaldi ikusi ahal izan euen kongresistak; era askotako pertsonak hurre-ratu ziran Oñatira aste horretan: agintarixak, diputaduak, erregia, obispuak, irakasliak, idazliak, musikukak, artistak, deportistak, hizlarixak, entzuliak, ikusliak eta abar luzia.

Erabagi garantzitsuak be hartu ziran orduan. Eusko Ikaskuntza Alkartia bera gauzatu ez ezik, euskeriaren akademixia, Euskaltzaindixa, sortzeko asmua be Oñatin mamittu zan egun hareittan. Gerora euskaltzain izango ziranak kongresu-lanetan jardun euen, bide batez aspaldiko ametsari aurrerabidia emuteko ahalegiñetan: Resurrecion Maria Azkue, Julio Urkijo, Koldo Elizalde, Arturo Campion, Domingo Agirre, Raimundo Olabide, Karmelo Etxegarai, Joxe Migel Barandiaran eta Manuel Lekuo-na, bestiak beste.

Oñatiko herrixa etzan atzera geratu: ixa berrehun txantxikuar agerketan dira kongresisten izen-zirrindaran; kontzejuak parte haundixa hartu eben egun hareittarako antolamenduan; oñatiarrak izan ziran agorraren 5ian kale-jaixetako protagonistak: neska gaztiak maiak izeneko ikuskizunian eta Goribar auzokoak ezkontza-arriuaren erakustaldixan; eta herrittar askok oso hurre-tik jarraitu euen aste berezi haretako gertakari eta gorabeherak: goguan dakot gure aitta, 50 urte beranduago, zein ondo akordaitten zan orduko jai-giruz.

Aurtengo zemendixan izango diran ospakizunen barruan, Artixa taldiak moldauko dauen erakusketa batian batzar haretako argazki-pilatxua ikusi ahal izango da. Aurrerapen moduan hona orain dala ehun urte, kongresua zala-eta, Oñatira etorritako agintari eta jauntxo batzuen fotografixa. Ezkerretik eskumara: Daniel Aldama Aldama, Arabako diputadu nagusixa; Jose Maria Orbe Gaitan de Aiala, Valdespinako markesa eta Gipuzkoako diputadu nagusixa; Balentin Zubizarreta Unamuntzaga, Camagüey-eko (Kuba) obispua; Leopoldo Eijo Garai, Bitorixako obispua; Mateo Mujika Urrestarazu, Burgo de Osma-ko (Soria) obispua; Ramon de la Sota Aburto, Bizkaiko dipatadu nagusixa; eta Juan Gordoia Perea, Oñatiko alkatia.

J. E.

Oharra. Aldizkari honetako aurreko zenbakixan beheko illaran ezkerretik lehenengo agiri dan neska dantzarixa ezta Maritxu Zarketa, Maritxu Uribarri baiño, Tomasen alabia.



centro hogar MUEBLES



ZIGARROLA 1
 TEL.: 943 71 10 12
 943 79 15 03
 ARRASATE



ZERKAOSTETA 3
 TEL.: 943 71 10 11
 ARRASATE

**grupo
 amuebladora
 mondragonesa**

